

112 zerbakia, 200ko eskaintza 2a
JARDUN ELKARTEA

Bergarako astekaria

Berrigara

Erakusketa: Ignacio Zuloaga, 4 • Tel.: 943 79 07 20 • ARRASATE

Urak arazteko sarea eraikitzen

Deba ibaiko urak
biziberritzea helburu



SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK

Ibargarai 11-13 BERGARA
Telefona eta faxa: 943 76 70 58



Etxeko Traste Zaharrak Jasotzeko Zerbitzua

orain sarriago!

DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA



BERGARA

Etxeko Traste Zaharrak jasotzeko Zerbitzuaren EGUTEGIA

• Zerbitzua hilean egun batetik bira pasatuko da Ekainetik aurrera.

• Trasteak jasotzeko egunak hileko 1. eta 3. Asteazkenak izango dira

• Jai eguna izango balitz hurrengo Asteazkenera pasatuko da.

• Goizeko 8-ak baino lehenago utzi behar dira trasteak, zaborra jasotzen den tokian.

• Abuztuan ez dago Zerbitzu hau.

Jasotzeko egunak.

ez ahaztu Goizeko 8-ak baino lehenago



Informazioa

943 79 33 99

EKAINA

A	A	A	O	O	L	I
		1	2	3	4	
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

UZTAILA

A	A	A	O	O	L	I
				1	2	
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

IRAILA

A	A	A	O	O	L
				1	2
4	5	6	7	8	9
11	12	13	14	15	16
18	19	20	21	22	23
25	26	27	28	29	30

URRIA

A	A	A	O	O	L	I
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

AZAROA

A	A	A	O	O	L	I
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

ABENDUA

A	A	A	O	O	L
					1
4	5	6	7	8	9
11	12	13	14	15	16
18	19	20	21	22	23
25	26	27	28	29	30

ANTZUOLA

Etxeko Traste Zaharrak jasotzeko Zerbitzuaren EGUTEGIA

• Zerbitzua hilean egun batetik bira pasatuko da Ekainetik aurrera.

• Trasteak jasotzeko egunak hileko 1. eta 3. Ostiralak izango dira

• Jai eguna izango balitz hurrengo Ostiralera pasatuko da.

• Goizeko 8-ak baino lehenago utzi behar dira trasteak, zaborra jasotzen den tokian.

• Abuztuan ez dago Zerbitzu hau.

Jasotzeko egunak.

ez ahaztu Goizeko 8-ak baino lehenago



Informazioa

943 79 33 99

EKAINA

A	A	A	O	O	L	I
		1	2	3	4	
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

UZTAILA

A	A	A	O	O	L	I
				1	2	
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

IRAILA

A	A	A	O	O	L
					1
4	5	6	7	8	9
11	12	13	14	15	16
18	19	20	21	22	23
25	26	27	28	29	30

URRIA

A	A	A	O	O	L	I
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

AZAROA

A	A	A	O	O	L	I
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

ABENDUA

A	A	A	O	O	L
					1
4	5	6	7	8	9
11	12	13	14	15	16
18	19	20	21	22	23
25	26	27	28	29	30



Hamar urte jardunean

Jose Angel Mikeo / Jardun elkartearen presidentea

Gure hizkuntzaren egoera normalizatzeko egiten dihardugun lanaren urteurrenak ospatzea ez da ohizkoa, eta ez dakit bidezkoa den ere, izan ere, euskaldun izena eman digun hizkuntzaren normalizazio ahalegina etengabekoa izan baita hizkuntza bera egituratu eta sortu zenetik. Baina herritarrok hizkuntzaren kontzientzia hartu, eta, era kontziente eta antolatuan, guztion ahaleginak bilduz lanean jartzea ospatzeko modukoa dela uste dut.

Jardun elkarteak hamar urte bete ditu pasa den maiatzaren 17an. Hamar urte ahoz ahozko dei bati seihun herritarrek erantzun eta abian jarri zela guztion arteko ekintza hau, eguneroko gure eginkizunetan euskaraz bizitzeko aukerak posible izan daitezkeen ahaleginuz diharduen elkarte hau.

Egunerokotasunetik perspektiba falta zaigu, eta badirudi egindakoa gutxi dela, baina atzera begiratu, euskarak hainbat arlo bereganatu dituela ere esan genezake: gazteen arloan aurrerakada handia egin da bai matrikulazio aldetik (A eta B ereduak desagertuz) eta baita aisialdiko ekintzetan ere; nagusien hainbat jardunetan ere, hitzarmenaren bidez, borondatea azaldu eta konpromisoak hartu dira, eta, apurka, gauzatu ere bai; komunikabideetan zer esanik ez... BERRIGARAK ere aurtengo Gabonetan

beteko ditu hamar urte, eta inork ezingo ukatu arrakasta, eta, Jardunen helburuetatik begiratu, lortu duena: ia inork euskaraz irakurtzeko ohiturarik ez zeukan herrian (egia esan ia ezer ez zegoen euskaraz prentsan) milaka irakurle sortu ditu, astero-astero herriko eta inguruko berriak etxean jaso eta naturaltasunez irakurtzen dituen irakurleak.

Idatzirikoaren hurbiltasuna eta herritarren partaidetza dira BERRIGARAREN arrakastaren gakoa, eta, goian aitatu dudak euskal irakurleak sortzeaz gain, arlo sozialean eragin duen beste lorpen batzuk ere azaleratu nahiko nituzke: Bergara udalerriaren kohezioan eragin nabarmena izan duela uste dut, elkarren berri izan dugunean herritarren partaidetza indartu eta arazoei buruzko iritzia sortzen lagundu baitu. Bestalde, BERRIGARAREN egiten den publizitateak herriaren

“Egunerokotasunetik perspektiba falta zaigu eta badirudi egindakoa gutxi dela, baina atzera begiratu, euskarak hainbat arlo bereganatu ditu”

komertzial zentzua indartu egin du, eta bezeroekin harreman bide berriak ireki; eta hori euskaraz egiten ari gara.

Joan den barikuan, eguakitzean, BERRIGARAREN egoitza berria herritarrei aurkezteko egin genuen ekitalditxoan, Jarduneko duen erronka nagusia 2000 urtean bere bazkideak normalizazio prozesuaren partaide eraginkor bihurtzean dagoela esan nuen. Elkarlanetik abiatuz lan itzela dagoela oraindik egiteko. 1990an lortu genuen lanerako batasun haren indarra eguneratu beharra daukagula. Eta Antonio Urzelai zana etorri zitzaidan burura, Jarduneko bazkide izan zena elkartearen sortu zenetik. Bertan eguneroko lanetan genbiltzan gehienokin berrogeita hamar urte baino gehiagoko aldeak zeukan, baina argi zeukan adinaren eta belaunaldien mugen baino harantzago doan borrokan sartuak geundela, eta bere ahalegina, sormena, ideiak ekartzera hurbiltzen zen ahal zuen guztietan. Edade, lanbide, sentsibilitate, jarrera politiko, eta beste hainbat “mugaz” gain, elkarlanerako topalekuak baditu gure gizarteak; euskararen normalizazioa da bat, eta denok batera lortu dezakeguna.

Bide horretan Jarduni eta BERRIGARARI zorianak hamargarren urteurrenean, eta eskerrak mila jardunean lagun izan diren guztiei.<

barruan



Jon Errasti

Euskara irakaslea

“Selektibitateak baldintzatu egiten du ikasleak izango duen bizitza”

8.



Uxue Lazkano

Nesken futbol taldekoa

“Antonianoaren aurkako zapatuko finalean ez nuke nahi penaltietara iristea”

22.



M.E. Basterra

Ecuador Bidaietako

“Indiako iparraldera jungo nintzake gustora, hegoaldia ezagutzen dot-eta”

29.

AGENDA ETA ZERBITZUAK



BEKAK

Leonardo da Vinci. Confesbak. 28 urtez azpiko unibertsitario edo titulatu berriak. Lan esperientzia gabekoak. Atzerriko enpresetan praktikak egiteko bekak. Epea: uztailak 14.

IKASTAROAK

Erdi-mailako eta Goi-mailako ziklo formatiboak. Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian. Arlo ezberdinetako ikasketak. Epea: ekainak 1etik 12ra.

Europako Batasuna.

Kanpo Arazoetarako Ministerioa. Unibertsitateko goi mailako titulua; frantsesera. Eskola Diplomatikoan burutuko den ikastaroa, urrian hasi eta abendura arte. Epea: irailak 18.

Udako Euskal Unibertsitatea; 28. ikastaldia. Gaiak: Artea eta Komunikazioa, Zientziak eta Giza eta Gizarte Zientziak. Epea: Ekainak 16.

SARIAK

Goierri 2005.

Goieki. Ideia Berriztatzaileen IV. Sariaketa. Goierriko eskualdean enpresa berri bat antolatzeko b orondatea duten pertsona fisikoentzat. Epea: ekainak 30.

Mendiko diapositibak.

Pol-Pol Mendizale Taldea, Gipuzkoako Mendizale Federakundea. Mendiari eta ingurugiroari buruzko diapositibak lehiaketa. Epea: ekainak 12.

EKITALDIAK

Benicassim-eko II topaketa latindarra.

Kontzertuak, lehiaketak, erakusketak eta abar. Egonaldia. Uztailak 6, 7 eta 8.

Aisialdiko VI Munduko Biltzarra.

Deustoko Unibertsitatea. Uztailaren 3tik 7ra. Izena emateko epea: ekainak 16.

EMPLEO

Garbiketa Peoia. Bergarako Udala. Eskola ziurtagiria edo baliokidea. Euskarako H.E.1. Lehiaketa-oposizioa. Epea: ekainak 6.

Liburutegi arduraduna. Nafarroako Gobernu. Batxil. L.H. 2 edo baliokidea. Epea: ekainak 7.

KARNETAK

Nazioarteko Aterpeke, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zatzoz Gazte Informazio Gunera.

INFORMAZIO GEHIAGO:

BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA (Kultur Etxea) TELEFONOA: 943 77 91 57. E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net Osteguna/ostirala: 16:00-20:00 Larunbata: 09:30-13:30

OHARRA. Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresen eskertuko genizueke Gazte Informazio Gunera igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazteei nahiz probintzia guztikoei informazioa zabaltzeko. Mila esker.

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Sagu-itxu edo satitxu

Belardietan ibiltzen den sagu txiki muturzorrotza. Satitsua.



JOSU OKINA

Temperaturak eta euria Bergaran

Elosu: Joxean Azkarate
San Juan: Luis Mari Agirre

	Elosu			San Juan		
	max. °C	min. °C	euria l/m ²	max. °C	min. °C	euria l/m ²
Eguena 25	18	11	2,8	21	13	0,6
Eguakitzza 26	18	13	20,2	24	11	17
Zapatua 27	19,5	8,5	2,3	25	11	0,9
Domeka 28	16	11	7,4	22	14	7,3
Astelehena 29	18	12,5	-	21	16	-
Martitzena 30	20	13	-	25	16	-
Eguaztena 31	19	13	-	26	11	-

Farmaziak

Eguakitzza 2:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Zapatua 3:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Domeka 4:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Astelehena 5:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Martitzena 6:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Eguaztena 7:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Eguena 8:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Ogia

Domeka 4: Konde.

mezak

Santa Marina

Domekak: 11:30, 13:00.
Zapatuak: 19:00.
Lanegunak: 19:30.

San Pedro

Domekak: 09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:00.

Osintxu

Domekak: 11:30.
Zapatuak: 19:00.
Elosu
Domekak: 10:00.

Ubera

Domekak: 10:30.

San Juan

Domekak: 11:00.

Basalgo

Domekak: 13:00.

San Prudentzio

Domekak: 10:30.

URTE-MEZAK

Santa Marina

Hileko 2. astean, domekan, 11:30ean.

San Pedro

Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

Labegarieta

Domekak: 11:00.

San Lorentzo

Zapatuak: 20:00.

Angiozar

Domekak: 11:00.

Eguakitzza: 19:00.

Monja

Domekak: 18:00.

Zapatuak eta lanegunak: 20:00.

Mizpirualde

Domekak: 11:45.

Zapatuak eta lanegunak: 11:45.

Antzuola

Domekak:

09:00, 11:30.

Zapatuak eta lanegunak: 19:30.

Uzarraga

Domeka: 10:00.

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIAK

SOS deiak	112
DYA	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Bergarako udaltzaingoa	943 77 91 06
Antzuolako udaltzaingoa	943 76 62 46
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitalea	943 03 53 00
Mendaroko ospitalea	943 03 28 00
Zumarragako ospitalea	943 03 50 00
Arantzazuko osp. (Donostia)	943 00 70 00
Santiago ospit. (Gasteiz)	945 00 76 00
Txagorritxu osp. (Gasteiz)	945 00 70 00
Basurtoko ospitalea	94 400 60 00
Galdakaoko ospitalea	94 400 70 00
Gurutzetako ospitalea	94 600 60 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 49
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23
Odol emaleak	943 76 16 24
Itxaropenaren telefonoa	943 45 80 05

GARRAIOAK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 35 99

UDALA

Bergarako udaletxea	943 77 91 00
Antzuolako udaletxea	943 76 62 46
Udal Artxiboa	943 77 91 32
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 62
Kirolegia	943 76 56 41
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 68

ABERIAK / ISTRIPUAK

Argindarra. Iberdrola	901 20 20 20
Grua. Ibai	608 67 68 21

BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 92
Erregistroa	943 76 13 15
Jardun	943 76 36 61
Idolaz	943 76 65 08
Jubilatuena Etxea. Bergara	943 76 21 40
Antzuolako jubilatuena elk.	943 76 62 71
Postetxea	943 76 26 85
Bedelkar	943 76 04 68
Akulu AEK	943 76 05 18
Udal euskaltegia	943 76 44 53
Bergarako notaritza	943 76 10 73

zorion agurrak



Nerea Agirre
5ean 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak, Unai eta
lagunak.



Leire Moñux
9an 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Mikel Mujika
11n 11 urte.
Urte askotarako!
Aita, ama eta Jon.



Pili Inza
4an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Leire Fernandez
8an 14 urte.
Urte askotarako!
Koadrilakoak.



Santi Gonzalez
8an 29 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Irati Lazpiur
2an 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Asier.



Oihana Alzelai
8an 7 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak eta
Amaia.



Ibai Lazkano
7an 10 urte.
Urte askotarako!
Bergarako familia.



Jon Lazkano
5ean 30 urte.
Urte askotarako!
Itxaso eta Aitor.



Jone Curado
7an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Leire eta Unai.



Valle Rodriguez
7an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Nekane Aranzabal
3an 21 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta anaia.



Jose Mari Martin
3an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Bergarako ilobak.



Txiki
5ean 30 urte.
Urte askotarako!
Itxaso eta Aitor.



Patxi Vallejos
11n 31 urte.
Urte askotarako!
Nerea eta Andoni.



Roberto Zurro
11n 36 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Daniel Diez
3an 5 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Kepa Varela
6an 15 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta
arriba.



Aizpea Egaña
6an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Ibon Gomez
2an urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak, Josu,
Mariñe eta Alatz.



Andoni Fernandez de Lezea
11n 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Jon Fernandez
6an 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Alejandro Alberdi
6an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Lorea Franco
7an 6 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Asier.



Kristina Cerdeira
4an 29 urte.
Urte askotarako!
Laguna eta Itxaso.



Oier Aperribai
3an 9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Leire Unamuno
7an 11 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.

Hurrengo alean ez da zorion agurren atalik izango, Pazkuetako ale berezia dela eta. Ondorengoan, ekainaren 16koan, ekainaren 16tik 22ra bitartekoan zorion agurrak argitaratuko ditugu.

hildakoak

BERGARA

Pedro Zumelaga Ajuria

Maiatzak 26, 79 urte

Antonio Alberdi Lizarralde

Maiatzak 26, 65 urte

Mikaela Ezenarro Larrañaga

Maiatzak 26, 94 urte

Juan Lizarraga Igoa

Maiatzak 30, 82 urte

Baldomero Fernandez de Retana

Alustiza

Maiatzak 30, 75 urte

ANTZUOLA

Felix Garitano Ezpeleta

Maiatzak 28, 80 urte

jaietakoak

BERGARA

Jane Agirre de Pedro

Maiatzak 18

Maialen Maiztegi Vidal

Maiatzak 23

Ander Lasa Murgizu

Maiatzak 28

ANTZUOLA

Josune Agirre Luna

Maiatzak 20

autobusak

Bergara-Antzuola. Lanegunak: 08:00, 09:00,

11:00, 14:00, 15:00, 17:00, 18:00, 20:30.

Zapatuak: 08:00, 09:00, 14:00, 18:00, 20:30.

Domeka eta jaieg.: 09:30, 10:00, 18:00, 18:30.

Antzuola-Bergara. Lanegunak: 08:00, 09:40,

12:05, 16:40, 17:15, 18:00, 19:35, 20:40.

Zapatuak: 08:30, 12:05, 18:00, 19:35, 20:40.

Domeka eta jaiegunak: 10:00, 17:55, 18:35,

20:30, 22:05.

Bergara-Arrasate-Eskoriatza. Lanegunak:

07:20, 08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35,

14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35,

20:30*, 21:05*, 21:35*. Zapatuak: 09:35,

11:35, 13:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35,

20:30*, 21:05*, 21:35*. Domeka eta

jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:35, 16:35, 18:35,

21:05*, 21:35*. (*Arrasateraino)

Bergara-Gasteiz. Lanegunak: 06:45, 08:15,

09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 16:00, 19:00, 19:15,

21:15. Zapatuak: 07:15, 08:15, 09:15, 11:15,

14:15, 15:15, 19:00, 19:15, 21:15. Domeka eta

jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 17:15,

19:00, 19:15, 21:15.

Gasteiz-Bergara. Lanegunak: 06:30, 07:30,

08:30, 12:30, 14:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30.

Zapatuak: 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 16:30,

18:30, 19:30, 20:30. Domeka eta

jaiegunak: 08:30, 09:00, 10:30, 12:30, 16:30,

18:30, 19:30, 20:30.

Arrasate-Bergara. Lanegunak: 05:50, 06:30,

07:05, 07:20, 08:05, 08:20, 09:05, 09:20,

10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 13:20, 14:05, 14:20,

15:05, 16:05, 17:05, 17:20, 18:05, 19:05, 19:20,

20:05, 20:20, 21:20. Zapatuak: 07:20, 08:05,

08:20, 10:05, 12:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05,

16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20,

21:20. Domeka eta jaiegunak: 09:20, 09:50,

11:20, 13:05, 15:05, 17:05, 19:05, 19:20, 20:05,

20:20, 21:20.

Bergara-Oñati. Lanegunak: 07:35, 09:35,

13:35, 16:35, 18:35, 19:35, 20:45. Zapatuak:

20:45. Domeka eta jaieg.: ez dago zerbitzurik.

Oñati-Bergara. Lanegunak: 07:10, 08:00,

13:10, 13:55, 16:00, 17:10, 19:10. Zapatu,

domeka eta jai egunak: ez dago zerbitzurik.

Bergara-Eibar. Lanegunak: 06:05, 07:20,

08:20, 09:20, 09:35, 10:20, 11:20, 12:20, 13:20,

13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20,

19:20, 20:20, 21:35. Zapatuak: 08:20, 09:35,

10:20, 12:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20,

17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. Domeka eta

jaiegunak: 09:35, 11:35, 13:20, 13:35, 15:20,

17:20, 17:35, 19:20, 19:35, 20:20, 21:35.

Eibar-Bergara. Lanegunak: 06:15, 06:50,

08:00, 09:00, 10:00, 10:45, 11:00, 12:00, 13:00,

14:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45,

19:00, 20:30, 21:00. Zapatuak: 06:45, 09:00,

10:45, 11:00, 13:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00,

18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. Domeka eta

jaiegunak: 08:45, 10:45, 14:00, 14:45, 16:00,

16:45, 18:00, 18:45, 20:30, 21:00.

Bergara-Donostia (Autopistatik).

Lanegunak: 06:45, 08:35, 10:35, 13:35, 14:35,

15:35, 17:35, 19:35. Zapatuak: 07:35, 08:35,

13:35, 14:35, 19:35. Domeka eta jaieg.: 10:05,

19:35.

Bergara-Donostia (Tolosatik).

Lanegunak: 09:00, 18:00. Zapatuak: 09:00,

18:00. Domeka eta jaiegunak: 10:00, 18:00.

Donostia-Bergara (Autopistatik).

Lanegunak: 06:15, 07:15, 08:15, 12:30, 13:30,

15:00, 18:00, 19:30, 20:45. Zapatuak: 08:15,

12:30, 18:00, 19:30, 20:45. Domeka eta jaieg.: 18:00,

20:45.

Donostia-Bergara (Tolosatik).

Lanegunak: 07:00, 16:30. Zapatuak: 07:00,

16:30. Domeka eta jaiegunak: 08:30, 19:00.

Bergara-Bilbo. Laneg.: 06:30, 08:40, 14:30,

18:10. Zapatuak: 07:15, 08:40, 14:30, 18:10.

Domeka eta jaieg.: 10:10, 14:30, 18:10, 19:15.

Bilbo-Bergara. Lanegunak: 08:00, 12:30,

17:00, 20:00. Zapatuak: 08:00, 17:00, 20:00.

Domeka eta jaiegunak: 09:00, 12:30, 17:00,

19:30, 21:00.

ANTZERKIA

► **Tentazioa** taldearen **"No es tan facil"** antzezlanari bihar, zapatua, 22:30ean Elorrioko Arriola aretoan.

MUSIKA

► **Jam**. Bihar, zapatua, **Ñaco Goñi y Los Bluescavidas**, 22:30ean. Eguenean, hilak 8, **The Fleshtones**, 22:00etan, eta hilaren 9an **Baron Rojo, Muro Tierra de Nadie**.

► **Joxe Ripiau** bihar, zapatua, 23:00etan Elgetako Gaztetxean.

► **Musika Eskolako ikasle-en kontzertuak**. Ekainaren 5ean, biolin eta biola kontzertua 19:30ean Musika Eskolan, hilaren 6an flauta kontzertua 19:00etan Musika Eskolan eta hilaren 7an ordu eta toki berean trikitixa kontzertua.

ERAKUSKETAK

► **"Zaharkinak"** erakusketa Antzuolako pilotalekuan, ekainaren 11ra bitartean. Eguakitzetan 18:00etatik 20:00etara, eta, zapatu eta domeketan, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

► **Joaquin Loidiren** margoak Donostiako Etxeberria galerian (Zubieta 20-Kontxa pasealekua) ekainaren 17ra arte.

KONTZERTUA

Los Suaves

- Gaur, eguakitzan, 22:00etan
- Jam aretoan
- Sarrera: 1.600 pta. aurrrez. 1.800 pta. takilan

Los Suaves heavy talde galziarraren bisita izango dugu gaur gauean Jam aretoan. 1981. urtean, A Coruña, Ramones talde mitikoa teloneatu zutenetik, galziarrek ibilbide luzea izan dute, eta baita jarraitzaile ugari lortu ere. Estatuan ez ezik, Portugalen eta Argentinan ere disko asko saldu du Ourenseko taldeak. "Vispera de todos los santos" beraien azken lanak ere harrera ona izan du, eta gaurko kontzertuan, nagusiki, disko horretako abestiak joko dituzte, tartean "Harto de ser hombre", "Palabras para Julia" (Paco Ibañezen kantu baten bertsioa), "Noche de luna y pateras", "Míenteme" edo "No me gusta el rock & roll". Yosi (ahotsa), Alberto (kitarra), Charly (baxua), Gelo (bateria) eta Fernando taldekide berriak osatzen dute Los Suaves gaur egun.

Oraindik ere, galziarrek sekulako indarra erakusten dute zuzeneko emanaldietan, eta euren jarraitzaileek ondo dakitene hori. Musikaz gain, testuek ere berebiziko garrantzia daukate Los Suaves taldearen abestietan, eta jai giroa edo kritika soziala lantzen dute. Bere aurreko diskoen artean, "Esta vida me va a matar" (1982), "Frankenstein" (1984) edo "Maldita sea mi suerte" (1991) nabarmendu daitezke. 1993. urtean Polydor multinazionalarekin fitxatu zuten, eta "Malas noticias" izenburuko diskoan euren ohizko gaiak jorratu zituzten: bizitza, heriotza, amodioa, patua... Thin Lizzyren eragina ere aitortu dute askotan, baina beren estilo propioa dutela ezin ukatu. Azken lana aurkezteko berran, gaur Amillagan ditugu.



Los Suaves taldeak bere azken diskoa aurkeztuko du gaur Jam-en.

LEHIAKETAK

► **Soraluzeko kaleko VIII. Margo lehiaketa** domekan, ekainak 4. Izen-ematea egunean bertan egin beharko da Soraluzeko Udaletxean, goizeko 9etatik 10etara.

► **Diapositiba lehiaketa**: Mendia eta ingurumena. Bi arlotako diapositibak (35 mm.) sarrituko dira: batetik, mendia eta bere aberastasunak; eta, bestetik, mendietako ingurumen arazoak. Lanak entregatzeko epea ekainaren 12an bukatuko da. 943 76 48 51.

IKASTAROAK

► **Kantu ikastaroa Mikel Markezaren eskutik**, Jardun elkarteak antolatuta. Orduetgia partaideen artean erabakiko da. Argibide gehiago 943 76 08 19 zerbakian.

Masterreka 19, behea. 943 76 46 53.

Ametz

TXINAKO MEDIKUNTZA TRADIZIONALA
Shirley Garcia, akupuntore profesionala, 781 zkia.
Ansietatea, stressa, tabakoa, depresioak, gizentasuna

Tratamendu pertsonalizatuak eta ondorio gabeak.

KONDE

Burdinate 1
☎ 943 76 02 57

PANADEROKUA

DEIAK

► **Gazte lokaleko txoznan** lan egiteko jendea behar da. Izen-ematea Pol-Pol, Ziripot, Etxagi, Arrano eta Popis tabernetan egin daiteke.

► **Egonaldiak familia euskaldunetan.** Parte hartzeko baldintzak 18-45 urte bitartean izan, eta, gutxienez, euskaldun-tzearen 8. urratsari dagokion euskara-maila egiaztatzea dira. Ikasleak hilabeteko edo bi hilabeteko egonaldia egiteko eskubidea izango du uztail, abuztu eta irailean. Eskabide-orria ekainaren 5a baino lehen aurkeztu beharko da. Argibideak 943 01 26 61 zenbakian.

► **Gose greban** diren euskal presoan aldeko enkarteladak egunero: goizez, 12:30etik 13:30era eta arratsaldean 18:30etik 19:30era.

► **Odol ateraldia** eguaztenean, hilak 7, 18:30ean, Seminarioko lokalean. Bestalde, bailarako batzar orokorra datorren urriaren 8an izango da, Arantzazuko hoshpederian.

► **Batasunaren batzarra** datorren eguaztenean, hilak 7, 19:00etan Miguel Altuna institutu zaharreko aretoan.

OHARRAK

► **Musika Eskola.** Hurrengo ikasturterako matrikula epea

zabalik izango da ekainaren bukaerara arte.

► **Udal euskaltegian** matrikula epea zabalik ekainaren 7tik aurrera. Argibideak 943 76 44 53 zenbakian.

► **Traste zaharrak** biltzeko kamioia, hileko lehen eguaztenean pasatzen dela gogorarazten du Udalak. Beraz, trasteak goizeko 8ak baino lehen atera beharko dira zabor guneeetara. Erdigunetik kanpoko auzokoei, bezperan eguerdiko ordubata baino lehen abisua utzi behar dute Udaltzaingoa (943 77 91 06) kamioia bertatik pasatzeko.

► **San Martzialgo** zelaiko taberna eta txoznaren esplotazioa adjudikatu nahi du Udalak, Idazkaritzan aurki daitezkeen baldintza pleguen arabera. Eskerak Udaletxeko erregistro orokorrean aurkeztu beharko dira ekainaren 16ko 13:30ak baino lehen. Argibide gehiago 943 77 91 00 telefono zenbakian.

JAIK

► **Asentzio eguna Elgetan** domekan, ekainaren 4an. Goizeko 10:30ean arrantza txapelketa, 11:00etan herriko trikitilarien saioa, ondoren salda eta txorioza Gure Bordan, 12:00etan meza eta jarraian dantza erakustaldia. Bazkari herrikoia 14:30ean izango da (txartelak herriko tabernetan salgai) eta 16:30ean Bigira taldearekin erromeria.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

Historia de lo nuestro
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

Pokemon

Zapatua: 17:00, 19:30.
Domeka: 17:00.

ARRASATE. Alai zinema

Inocencia interrumpida

Eguakitza: 22:00.

Elmo en el país de los gruñones

Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.

Las vírgenes suicidas

Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.

Martitzena, ikuslearen eguna

19:00, 21:30.

ARRASATE. Amaia

Segunda piel

Eguena: 21:30.

EIBAR. Unzaga

Pitch black

Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena: 19:30, 22:15.

Eguaztana, ik. eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto

Ojos que te acechan

Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

ELORRIO. Arriola

Erin Brockovich

Domeka: 20:00.

Astelehena: 20:00.

AZKOITIA. Baztartxo

Una historia verdadera

Eguakitza: 22:00.

AI limite

Zapatuan: 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena, ikuslearen eguna: 20:00.



HISTORIA DE LO NUESTRO

Zuzendaria: Rob Reiner.

Aktoreak: Bruce Willis, Michelle Pfeiffer. =13 urte

Rob Reiner zuzendariak (*Algunos hombres buenos*) mundu osoko takiletan momentuko aktorerik arrakastatsuenetakoa direnak bildu dituzte bere azken filmean, hamabost urtez ezkondu daraman bikote baten paperean. Biek ere euren harremanetan atsedena baldin bat hartzea erabakiko dute, krisialditxo bat gainditzeko asmoz.

POKEMON

Zuzendaria: Kunihiko Yuyama. =Adin guztiak

Warner Bros produktorak aurkeztutako marrazki bizidunetako filme honek izugarriko arrakasta izan du azken hilabeteetan. Zientifiko talde bat, ezkutuan, laborategi batean lanean izan da, Pokemon indartsuena (Frankenstein antzeko bat) sortzeko helburuarekin. Mewtwo izeneko Pokemonak bere sortzaileei aurka egingo die eta Mew boteretsuaren kontra ere borrokatu nahi izango du...

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.

- 📐 Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
- 📐 Ziklomotorreko lizentzia astebetean. AZTERKETARIK GABE!
- 📐 Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txarelarekin

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!

ARRAÑAGA
A U T O E S K O L A

Tf. 943 76 16 63

Aranzadi Ikastolako irakasle da urte askoan Jon Errasti, eta orientatzaile lanak ere egiten ditu. Iraileko konbokatoren desagertzea eta selektibitateak jasandako aldaketak direla eta, honek ikasleen artean izan dezakeen eraginaz aritu gara.

G. Iraileko konbokatoriak uztaileira aurreratu omen dira.

E. Lehen iraileko aukerazena, orain, ekain amaiera aldera egingo da. Eta selektibitatea egiteko garaia ere aldatu egin da. Iraileko konbokatoria uztaileira aurreratu da, eta selektibitatea lehen bi egunetan egiten bazen, aurten hirutan egingo da.

G. Zer dela eta aldaketa?

E. Ezer baino gehiago uste dut konstatatuta gelditu dela, suspendituta geratzen den jendeak uda partean ez duela gauza handirik egiten. Dena den, ez dakit formula berri honek emaitza hobekak emango dituen ala ez. Azken batean hiru edo lau aste ez baita denbora gehiegi konbokatoria bat prestatzeko. Abantaila bezala, entzun izan dut, betiere kurtso barranean gauzak freskoago mantentzen direla, eta bigarren konbokatoria hurbilago izatean haria ez dela zeharo galtzen.


Teorian behintzat ikasleen onurarako planteatzen da aldaketa. Ez dakit atzean beste interes ezkutu batzuk egongo diren.

G. Selektibitateari lotuta, beti airean egon den kezka bat da ea beharrezkoa den.

E. Era bateko edo beste aukeraketa bat egin behar da, unibertsitateak ez baitu horrenbeste jende hartzeko lekurik. Aukeraketa beste era batekoa ere izan zitekeen. Beti pentsatu izan

JON ERRASTI
Euskara irakaslea

“Selektibitateak baldintzatu egiten du ikasleak izango duen bizitza”



Errastik urte asko daramatza irakasle eta ikasleen orientatzaile ere bada.

dut selektibitate orokor bat egin barik, zergatik ez den egiten fakultateka. Agian larregi esatea da, baina ez dut uste selektibitatea horrela egitea erabaki dutenek letxe txarrarekin egin dutenik. Baina sistema honek ez duela inor pozik uzten egia da.

G. Orientatzailea zara, zein da zure egitekoa?

“Ikasle gehienek ingeniari-tza ikasketak aukeratzen dituzte. Lana aurkitzeko erraztasunagatik eta bizi garen bailarak eraginda”

E. Ikasketa ertainak bukatzeaz dituzten ikasleen kasuan gehienbat informazioa eskaintzea da. Hasi-ran, ikasketa ezberdinak non egin daitezkeen edota zein nota behar den unibertsitate bakoitzean sartzeko. Behin kurtsoa aurrera doan heinean, ikasleen aukera ere nabarmenagoa izaten da, eta hor aurrematrikula eta matrikula epeak noiz diren eta horrelakoak.

G. Karrera bat aukeratzeko orduan, badute joera nabarmenik ikasleek?

E. Hemen inguruan ingeniari-tza da gehienek aukeratzen dutena. Enpresa-zientziak eta ekonomia ikastera ere jende nahikotxo joaten da. Eta aurten ez dakit, baina aurreko urteetan modan egon da Eskoriatzan jarri duten Enpresa eta Humanitateak ikastea. Baina hemen inguruan, gehiengoak ingeniari-tza aukeratu du, agian bizi garen bailararen eraginez. Bestalde, modak ere karrera aukeratzeko orduan zerikusirik baduela diote batzuek.

G. Ikasleek gustoko dituzten karrerak aukeratzen dituzte edota lana aurkitzeko erraztasun handiagoa eskainiko dizkietenak?

E. Seguraski lana aurkitzeko orduan erraztasun handiagoak emango dizkietenak. Hori entzuten da, bederen, ikasleen artean. Eta gehiago gurasoen artean.

Hala ere, gaur egun lana ziurtatzen duten karrerak gutxi batzuek dira, duten zailtasunagatik. Hori horrela, ikasle gehienek, eskura daukaten abanikoari heldu behar izaten diote. Baina nahiz eta abanikoa murriztu, etorkizunean lana topatzeko aukera gehien ematen dien karrera aukeratzeko dutela uste dut. Nahiz eta beste hainbatek zaletasunari ere eusten dion.

ezkertiarra
al zara?

independentista
al zara?

ongi etorriak
batasunaren
prozesura

ASANBLADA

Ekainaren 7an, eguaztena, 19:00etan
Elementaleko aretoan

euskalherrikoezkertiarren

batasuna



Miguel ALTUNA institutua

AENOR
R
Enpresa
Erregistratua
ER-0528/2/98



2000/2001 ikasturterako
Hezkuntza-eskaintza

kalitateko eskaintza

GOI MAILAKO PRESTAKUNTZA ZIKLOAK

- Administrazio eta finantzak
- Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak
- Mekanizazio bidezko produkzioa
- Proiektu mekanikoen garapena
- Plastiko eta kautxugintza

ERDI MAILAKO ZIKLO FORMATIBOAK

- Mekanizazioa
- Ekipo eta instalazio elektroteknikoak
- Administrazio kudeaketa

Aurrematrikulazio epea: ekainaren 1etik 12ra
Orduetgia: 09:00etatik 13:00era

- Norberaren gaitasun eta nahien arabera egokitutako ibilbideak
- Behar diren baliabideekin
- Bide eta ate guztiak zabaltzen dituzten ikasketak
- Eskola publikoa: integratzailea eta anitza

Miguel Altuna Institutua. Ibargarai 1. Tf. 943 76 24 91 / 943 76 38 40

Berri gehiago nahi baduzu
deitu gure telefonoetara eta gure eskaintzari buruzko azalpenak emango dizkizugu

Herriko bost talde elkartu eta Txozna batzordea sortu dute Pazkuetarako

AEK, EHE, IA, AAB eta Gazte Lokala batu dira guneari nortasun propioa emateko

Txozna batzordea sortu da orain hilabete. Batzordeak, jai egitarau propioa antolatu du, eta Bideberrin hainbat ekitaldi eskainiko ditu Pazkuetan. Ekimena, txozna gunea jai-gune berezitu bezala gorpuzten joateko lehen urratsa da.

Martitzenean aurkeztu zen Txozna batzordea jendaurrean. AEKk, EHEk, Ikasle Abertzaleek, Amnistia-aren Aldeko Batzordeek eta Gazte Lokalaren aldeko taldeak osatzen dute. Batzordeak, jai egitarau ofizialaz aparteko ekitaldi sorta antolatu du Pentekosteetarako. Egitarau propioa sortzea, txozna gunea jai-gune berezitu bezala gorpuzten joateko lehen urratsa ematea da, txozna guneari nortasun propioa emateko nahian azken batean.

SORTZEKO ARRAZOIAK

Ekimen hau aurrera eramateko hainbat arrazoi azaldu zituzten batzordeko kideek. Batetik, indarrean dagoen jai-ereduak, "herritarra ikusle soil bihurtzen duela" azaldu zuten. Hori horrela, herritarra "partehartzaile zuzena izatea" nahi dute. Bestetik, jaiak "gure herri txiki honek dituen arazoak ahazteko baino", hauek azalera-tu eta zentralitatea emateko garai bezala ulertzen dituzte batzordekideek. Azkenik, euskal ekoizpengintzak bere tokia behar duela ulertuz, "euskal produkzioak gaur egun Bergaran jasaten duen



Orain dela hilabete sortu zen batzordea eta joan zen martitzenean egin zuten jende aurreko aurkezpena.

diskriminazioa" gainditu nahi du Txozna batzordeak, eta horretarako, Bideberri euskal gune bihurtuko dute.

EKITALDI UGARI

Arazoi hauek guztiak gauzatzeko, batzordeko kideek jai egitarau zabala antolatu dute Pazkuetarako. Eguakitzean, 20:00etan irekiko dira txoznak, eta ostean, Idoia eta Enaitz bertsolariek eta Itxaro eta Unai trikitilariak giroa alaituko dute. Zapatuan, 17:00etan, egongo diren bost txoznen inguruko panel informatiboak jarriko dira, eta jaien inguruko argazki erakusketa ere egongo da. Domekan, 20:00etan, afarimerienda egingo da. Afarimeriendarako, sagardo kupel bat ere eramango da, eta edalontziak 500 pezeta balioko du. Txartelak dagoneko salgai daude Pol-Pol,

Arrano, Ziripot eta Kortazarren. Txoznetan ere salduko dira. Afarimerienda eta gero, 22:00etan, "Trikitake" taldearekin erromeria egongo da.

Astelehenean, 18:00etan, herri olinpiadak egingo dira, eta baita bertso txapelketa ere. Txapelketan edonork har dezake parte

eta sariak ere izango dira. Azkenik, martitzenean, itxiera ekitaldia egingo da gaueko 24:00etan.

Honez guztiaz gain, Bideberri gazteendako bilgune aproposa ere bihurtu nahi du Txozna batzordeak, "txoznak soilik edateko tokia direlako uste horrekin apurtuz".



Ekitaldi ugari izango da txoznetan, trikitilariak, besteak beste.

Monumentu izendapena jaso du Santa Katalina XVI. mendeko ermitak

Monumentu izendapena eman dio Eusko Jaurlaritzak Santa Katalina ermitari eta Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartu du. Arrazoia, ermitak duen balio kulturala da.

Gauzak honela, joan zen astelehenean Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikari bat, Victoriano Gallastegi alkatearekin batera, ermitara hurbildu zen behar dituen konponketak aztertzeko.

Izan ere, orain bi hilabete behera etorri zen ermitaren zati handi bat. Kontua da, monumentu izendapenik ez zuenez, eta ezta jabetza ezagunik ere, inor ez dela bere kargu egin. Orain, monumentu izendapena duen heinean, Diputazioa behartuta dago ermitan akтуatzera. Hala ere, nahiz eta



XVI. mendekoa da eta zurezko sabaia balio historiko handia du. ARTXIBOA

teknikoa bidali duen, ez diote berritze lanei ekin. Izan ere, ermita ondoan dagoen Santa baserriko nagusiek ez dute begi onez ikusten ermita konpondu eta jasotzea, euren intimitatea

urratu egingo litzakeela argudiatuz. Diputazioan gaia aztertzen ari dira.

Ermitaren babes inguruaren mugapenari dagokionez, baselizaz gain, inguratzen duen landa zatia

ere hartzen du, ermitatik sei metrora dagoen Santa base-riarra barne.

Santa Katalina XVI. mende hasierako baseliza da. Bergarako ermiten artean interesgarrienetakoa. Izan ere, duen zurezko sabaia herriko beste ermita gehienetatik ezberdintzen du.

Gauzak honela, Victoriano Gallastegi alkateak esandakoaren arabera, Udala ermita berriztearen aldekoa da, nahiz eta Diputazioaren eskumena den. Bestalde, EHko ordezkariak, Udaleko bigarren indarra, ermita konpontzearen aldekoak dira aspaldidanik, eta orain berretsi egin dute euren postura, Santa Katalina Bergarako ondare kultural garrantzitsua den heinean.



Presoen aldeko manifestazioa

Euskal preso politikoen kolektiboak deituta, hainbat mobilizazio egin ziren joan zen astean zehar. Helburua, presoek eskubideak errespetatzeko urrats berri bat ematea izan zen. Mobilizazio horien artean, egunean, bi orduko greba egin zen komertzio eta industrian, eta eguerdiko ordu batean manifestazioa.

MUJIKA UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE
FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8 ☎ 943 76 28 67 BERGARA



BANKINTER

Zure hipoteka merkatuko preziorik onenean

%2,95* etik aurrera

*Irekiera komisioa: %1
*Lehen 6 hilabeteak
*35 urte bitartearaino

Jubilatuetan 10 ordenagailuko informatika gela inauguratu da

Informatika gela inauguratu zen joan zen eguean Jubilatuetan. "La Caixa" fundazioaren laguntzaz sortu da, eta dagoeneko, hamar lagun ari dira bertan Internet eskolak jasotzen. Ikastaroa maiatzaren 9an hasi zuten eta ekainaren 8an amaituko da. Ikastaroan, Windows sistema eta interneten nabigatzen ikasiko dute.

Informatika gelak, mediateka baten ezaugarriak ditu: 10 ordenagailu PC daude, koloretako inpresora bat, RDSI linea eta Internetarako koneksioa, telebista-bideoa aurikularrekin, 100 liburuko fondo bibliografikoa, aisia, osasuna, kul-



Dagoeneko hamar lagun ari dira internet eskolak hartzen.

tura eta abarri buruzko 20 CD Rom, eta hainbat gairen gaineko 20 bideo.

Gelaren helburua, nagusiek informazioa lor dezate-

ten aukera eskaintzea da, eta aldi berean, teknologia berrietan parte hartzeko aukera eskaintzea, bizimodu aktiboagoan murgiltzeko.

Pazkuetako baltsa jaitsierako izen ematea Kultur Etxean

Pazkuetako martitzenean egingo den baltsa jaitsieran parte hartzeko, izena Kultur Etxean emango da (943 77 91 58). Udaleko Ingurugiro Batzordeak antolatutako, Eguzki talde ekologistari lekukoa hartuz. Jaitsiera 19:00etan hasiko da Algodonerako zubian, eta Bideberrin amaituko da. Bi sari egongo dira: lehenari eta baltsa orijinalenari. Jaitsiera honekin, saneamendu integraletik hain gertu gauden honetan, herri erditik ibai garbi eta bizi bat pasatzea ondasun ikaragarria dela aldarrikatu nahi da.

GASTON Y DANIELA



Inglesina®



Kruz Gallastegi 3 **BERGARA** ☎ 943 76 07 37

Banatzaile ofiziala

Berrigara

412 zenbakia.
2000ko ekainaren 2a.

Irizar jauregia, Barrenkalea 33.
20570 Bergara
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta elektronikoa:
berrigara@topagunea.com
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Edu Mendibil.
Erredakzioa: Monika Belastegi,
Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
Maketazioa: Inaki Iturbe.
Publizitatea: Uxue Zabaleta.
Harpidetza: Itziar Kortabarria.
Testuen zuzenketak: Alex Labaien,
Maripi Laskurain, Estepan Plazaola.
Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate,
M. Angel Elkoroberizabar, Alex Labaien,
Estepan Plazaola.
Komikiak: Unai Azkarate, Oihan Vega,
Usa Mendikute, Gorka Ortega &
Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.
Kolaboratzaileak: Luis Mari Agirre,
Antxon Agirre Sorondo, Joxean Azkarate,
Juan Martin Elexpuru, Josu Okina.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk. (Oñati).

Azaleko argazkia: Berrigara

Tirada: 5.300 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanena eta
iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Begarako
Udala



Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jaurjaritzako
Kultura saila

gutunak

Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Irizar jauregia, Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

ZEZENEN ALDE

Zezenen errespeturako batzordekuok, Pazkuetarako aurreikusia dagoen txekorketa dela eta, Bergarako Udalari honako argudioak aurkeztu dizkiogu:

1.- Herri honetako hainbat eta hainbat bizilaguni etikoki desegokia eta kulturalki atzerakoa dela iruditzen zaigu animalientzako tratu txar nabarmenak dakartzaten jokuak egitea eta bultzatzea.

2.- Aipatu txekorketa ikuskizun publiko bihurtzea jadanik larria da. Gainera, hori jaietako egitarauan sartzan uztea, eta, Udaleko kultur instantzietatik sustatzea lekuz kanpo dagoela iruditzen zaigu.

3.- Justifikaezina da Kultur Batzordea eta Hezkuntza Batzordea dituen Udal batetik txekorketa bultzatzea, "txekorketa ohitura da..." argudio eztabaidagarria erabiliz.

4.- Jaietako igande arratsaldean txekorketarik ez egotea ez da hondamendia,

guztiz kontrakoa baizik. Pasodobleeng inguruan sor daitkeen jai giroa guztiok onar dezakegu, onartezina iruditzen zaigu, aldiz, txekorketaren ikuskizun-martirioa.

5.- Ez da bidezkoa zazpi urtetan udal agintariak inolako jaramonik ez egitea hainbat herritarrek txekorketa kentzeko egindako eskaerari.

6.- Sasiohiturak alde batera lagata, Udalak beharko luke lehena errespetuan oinarritutako elkarbizitza bultzatzen, bere eskuan dituen lege eta tresna guztiak erabiliz.

Azaldutako guztia kontuan hartuz, gure Udalari honako eskaera hauek egin dizkiogu: errespetuaren alde azal dadila, baita animalientzat ere, eta, beraz, ez dezala kuadrilen artean txekorketa bultzatu; ez dezala zezen plazaren instalaziorako baimenik eman; hirugarrenik, txekorketa ez dadila Pazkuetako egitarauan azaldu, ez dezala ekitaldi hau

burutzeko dirulaguntzarik eman, ez dezala antolakuntzan parte hartu, eta, azkenik, ez ditzala sarrerak, non, eta Kultur Etxean, saldu.

Azken finean, txekorketa egitea, hau da, animaliekiko tratu txarrak "festa" bihurtzea, onartezina dela iruditzen zaigu.

Bada ordua hainbat eta hainbat bergararrek eskatzen dutena, txekorketa ez bultzatzea, Udalak kontuan hartzeko.

Zezenen errespeturako batzordea

R.A.B

(NAN: 15.385.047) eta

M.A.A.

(NAN: 15.399.203)

tira biraka gorka ortega & jon alvarez



atrebentzia ezpada

bai, esan!

Pazkuetan jaiez disfrutatzea gustatzen jatu, ala kanpora juteko oiturgia daukazu?



Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97.
Identifikazioa beharrezkoa.



Fidele Amenabar

Hemen gelditzen naiz. Pentsatzen jat jaixetan norbere herrixan egon bihar dala. Gañera, familia etxera be etortzen jat.



Ana Maria Lopez

Herrixan gelditzen naiz. Senarrak Mondragoen eitten dau lan eta ezin izaten gara kanpora jun. Gañera gustau eitten jat kalera urtetzia.



Eñaut Uriarte

Normalian hemen geratzen naiz, baiña urteren baten kanpora jun izan naiz. Aurtten hemen geratuko naiz, konpromisoak dauzkat eta.

BIZIKLETAN IBILTZEKO BIDEGORRI ESKE

A. Garitanoren deia ja-so dugu aste honetan. Garitano txirrinduzalea ei da, eta, Bergaran bizikletan ibiltzeko leku aproposik ez dagoela diosku. Inguruko errepideetan ibiltzea oso arriskutsua iruditzen zaio, Bergaratik edozein tokitara joanda ere trafiko handia dagoelako. Trenbide zaharra aprobetxatzeko ordua dela dio Garitanok. Bere seme-alabekin bizikletan ibiltzera irtetzen da udaberri-uda partean, baina Osintxu aldeko trenbidea egoera kaskarrean dagoela dio. Beste horrenbeste gertatzen da Arrasaterako bidea hartuz gero. Egoera honen aurrean, Garitanok Udalarari arazoari konponbidea topatzeko eskatu nahi dio, Bergaran bizikletan ibiltzeko toki egokiak izan ditzagun.



Imanol Alberdi

Kanpora jutten naiz. Edadian gora goiaz eta ja ez daukagu zer eginik jaixetan. Seme-alabak hazi zianian hasi giñan kanpora jutten.



Jose De Pedro

Hemen geratzen gara. Urte osua herrixan egonda, jaixetan ez gara kanpora jun-go. Jai ostian, pare bat egun pasatzen dittut Logroñon.




Mariasun Gardoki

Herrixan geratzen naiz. Jaixak asko gustatzen jat, eta ahal doten dana ibiltzen naiz kalia, danerakua ikustia gustatzen jat eta.

Jai eta ospakizun berezietarako zatoz guregara



leapaindegi mistoa • Estilistak
Espoloia 4. behe. Tf. 943 76 72 76



Solariuma, udarako txanpuak, ilerako gantxoak...

R.M. ZUAZOLA-LARRAÑA
Gñatik b.h. institutua

2000-2001 Eskaintza

HEZIKETA ZIKLOAK ("D" EREDUA)

- Erdi Maila:
 - Mekanizazioa
 - Landa eta Ingurunean Gorputz eta Kirol Ekintzak Gidatzea
- Goi Mailakoa:
 - Gizarte eta Kultur animazioa

IZEN EMATEKO EPEA:
Ekainaren 1etik 12ra
TOKIA:
Larraña Ikastetxea
Tel.: 943 78 21 50
Faxa: 943 78 19 08

adituen esanetan

Intseminazio artifiziala

Aurrerapen genetikoa lortu nahirik, ganaduen intseminazio artifiziala aspalditik egiten da gure inguruan. 1945ean, Zizurkilen, Gipuzkoako intseminazio zentrua zabaldu zen (Estatu mailako lehena) eta 1951. urtean hasi ziren zezenen esperma administratzen bertan. Gizakien eta ganaduaren arteko intseminazio artifiziala bereiztu behar da lehenbizi: gizakien kasuan helburu nagusia emankortasuna hobetzea bada, albaitaritzan genetika hobetzea bilatzen da, modu merkean, seguruan eta azkarrean, gainera.

Hasierako intseminazio artifiziale-tan, duela 50 bat urte, zezenen esperma freskoa erabiltzen zen. Zezenei 2cm³ esperma ateratzen zitzairen, eta beste hainbat elementurekin disolbatuz, 50 bat dosi lortzen ziren toma bakoitzeko. Gaur egun, teknika askoz ere perfektionatuagoa dago, eta toma bakoitzeko, batez beste, 700 dosi lortzeko aukera dago, nagusiki diluitzaileak asko hobetu direlako. Behin zezenaren



JULIO ETXEBERRIA

Albaitaria

"Gizakien kasuan intseminazio artifizialarekin emankortasuna hobetzea bilatzen da; albaitaritzan, genetika hobetzea"

keraketa bat egiten baita. Zezenak hainbat ezaugarriren arabera hautatzen dira, beraien ondorengoek ezaugarri horiek izan ditzaten: haragi produkzio handiagoa, esne produkzioa edo dena delakoa.

Bestalde, intseminazioa bera oso merkea da (zezen onenetako baten intseminazioa egiteak 2.000 pezeta inguru balio du). Intseminazioari esker, ganaduaren kalitatea asko hobetu da azken urteetan.

esperma lortu eta gero, izoztu egiten da eta -196°Cko tenperaturaren nitrogeno likidoan kontserbatu. Oso prozesu sinplea da, eta ganaduarekin asko erabiltzen da gaur egun. Semena izozteko prozesua zaila da, eta, batez ere, gizaki eta ganadutegian erabiltzen da.

Susara dagoen behiari deskonjelatutako dosi horietako bat injektatzen zaio, minutu batean eta 37°Cko tenperaturaren. Lehen esan bezala, honekin ganaduaren hobekuntza genetikoa lortzen da, nolabaiteko arrazaren au-



Argazkian, Julio Etxeberria behi bati intseminazio artifiziala injektatzen, martitzenean, Elgetan.

bergarako errota

OKARANDI ERROTA

Gipuzkoako 1929ko Aldizkari Ofizialak honakoa zioen:

"Jose Olañeta jaun bergararak eskaria egin du, Ur Publiko-ko Aprobetxamenduko erroldan Albistegi eta Sasi erreketako urez baliatzen den bat jasoa izan dadin. Aipatutako horrek, Bergarako Ubera auzoan dagoen Ocarandi erroten argindarra sortzea du helburu. 100 litro ur jasotzen du segun-guko, eta 6,50 m.ko jauzia dauka..."

1936an hartu zuen alta errota "publiko" honek, Jose Olañeta Azkarateren izenean, eta 1949an ordaindu zuen azkenengo aldiz jardun horri zegokion zerga.

Auzokideek adierazi zigitenez (80/XII/31), Angel Olañeta izan zen azken erroteraria. 1960an hil zen, 65 urte zituela.

Elgeta errekararen eskumaldean kokatua, bi pare harri zeuzkan. Ondoan, zerratokia eta auzoko baserriendako argindarra sortzen zuen alternadorea zeuden.

Okarandi errota desagertuaren orubean etxebizitzak eraiki zituzten.

KOKAPENA: Uberako elizaren pare-parean.

"1936an hartu zuen alta errota 'publiko' honek, Jose Olañeta Azkarateren izenean, eta 1949an ordaindu zuen azkenengo aldiz jardun horri zegokion zerga"

Antxon Agirre Sorondo



Berrigarako egoitza berria inauguratu da

Eguakitzean inauguratu zen BERRIGARAK Irizar jauregian estreinatatu berri duen egoitza. Ekitaldian, **Udaleko hainbat ordezkari, Jarduneko bazkideak eta herritarrak** izan ziren. **Jose Angel Mikeo** Jarduneko lehendakariak eta **Edu Mendibil** Berrigarako zuzendariak Jarduneko bazkideei eta Udalari eskainitako laguntza eskertu zieten, udalak bulegoa utzi baitu, eta Jardunen kontu izan baita material berriaren erosketak.

Jardunekin jolasean

Ondo baino hobeto pasatu zuten joan zen eguakitz arratsaldean **Espoloian** zeuden haurrek. **Jardunek antolatutako jolas-leku ibiltaria** egin zen bertan, eta hainbat jolasetan aritzeko aukera ederra izan zuten. 5 eta 10 urte bitarteko umeei zuzenduta dago. Helburua, euskaraz berba eginez, ondo pasatzeko aukera eskaintzea da. Gaur, **Poligonoan**, ziburuen ondoan, izango da jolas-leku ibiltariaren bigarren saioa, arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara bitartean, eta hurrengoa ekainaren 8an izango da, **Simon Arrieta plazan**, ordu berean.



Mariaren Lagundiko jaia

Mariaren Lagundiko ikasleek **ikastetxeko jaia** ospatu zuten joan zen domekan. Eguraldiak ez zuen gehiegi lagundu, baina giro ona izan zen nagusi. Goizean zehar kirol jokoak, dantza saioak edo paella lehiaketa egin ziren. Bazkalostean, berriz, kukainak, gimnasia erritmikoa, sari banaketa eta dantzaldia antolatu ziren eta, ikasleek primeran igaro zuten eguna, lagunartean. Ekitaldietan **DBHko ikasleek eta LHko 2. eta 3. zikloko ikasleek** hartu zuten parte. Orain, ikasturteko azken sprintean, gogor egin behar...

Arima Beltza Kultur Errotarekin



Joan zen domekan, **Kultur Errotako lehenengo ekitaldia** egin zen Bergaran. **Pol-Pol** tabernan, **Arima Beltza** taldeak, kontzertua eskaini zuen. Jende ugari bildu zen blues talde elgoibartarra ikustera. Orain arte, ez ditu zuzeneko emanaldi asko eskaini, eta euren helburuetako bat entzuleekiko lotura lortzea da. Pol-Polen, behintzat, lortu zuten.

Duela bost urte, 1995. urtean, Gipuzkoako Ur Kontsorzioak uren saneamendua egiteko oinarri teknikoak azaltzen zituen dokumentu bat aurkeztu zuen. Alde batetik, kolektore sare bat eraiki beharra dago, eta, bestetik, araztegi edo depuradora bat jarri. Txosten horretan oinarrituta, lehiaketara atera zen kolektore sarea egiteko proiektua. 1996an Bilboko Fulcrum enpresari adjudikatu zitzaion zeregin hau. Azkenean, aste honetan bertan iritsi da enpresa honek hiru urtetan zehar prestaturiko proiektua.

Norbaitek pentsa dezake, hala ere: ez al dira bada kolektorea sartzen ari Ibargarai ibilbidean? Halaxe da. Kasu berezi bat izan da, baina. Bertan eraikitzen ari diren etxebizitzan inguruko urbanizazio lanak aprobeztatuz, kolektoreak sartzeko lanak batera egiteko erabakia hartu zen. Salbuespen bat da, beraz. Gainerako kolektore sare osoa, datorren urtean eraikitzen hastea espero da.

Araztegiaren proiektua, berriz, Gipuzkoako Ur Kontsorzioak berak egin du. Baina araztegia jartzeko, aldez aurretik, kolektore sarea sartzeari bukatu behar da.

Hau guztia Europako Kontseiluaren Arteztarau batetan oinarritzen da, 1991ko maiatzaren 21eko Arteztarauan hain justu. Arau honetan 2001. urterako kolektore sarea eraikita egon beharko dela esaten den arren, 2005erainoko epea dauka Gipuzkoako Foru Aldundiak Bergarako sarea bukatzeko; proiektua martxan dagoenez, epe hori luzatu egiten baita.

HELBURUA, DEBA IBAIA BIZIBERRITzea

Deba ibaia Gatzagan sortzen da, eta Deban itsasoratu bitartean, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara eta Sorluzetik igarotzen da, besteak beste. Zonalde hau, Gipuzkoako industrializatuenetakoa bat dugu, eta horrek eragina dauka ibaiaren kutsaduran. Hala ere, ez dira lantegietako isurkiak erreka zikintzen duten bakarrak, etxeetako hondakinak ere errekarara isurtzen baitira.

Deba ibaia Eskoriatza eta Elorregi bitartean dagoen arren kutsatuena, Bergaran ere garbitu bariko isurketak egiten dira; uraren kalitatea oso eskasa

Deba ibai garbi eta bizi baten alde

Ibargarai kalean hasi dira ur-zikinak jasoko dituen kolektorea sartzen

Ibargarai obrak herritar guztiok ezagutzen ditugu jadanik, nahikoa buruhauste ematen baitzikigu denoi, hara eta hona kotxez ibiltzen garenoi batik bat. Bergara handituz doa, gero eta etxebizitza gehiago eraikitzen dihardute, baita Ibargarai ibilbidean ere. Ibargarai lanak, hala ere, ez dira urbanizazio lanetara mugatzen. Izan ere, lan hauek aprobeztatuz, herriko ur-zikinak Mekolalden jarriko duten araztegi edo depuradorara eramango dituen kolektorea sartzen ari baitira. Hemendik hilabete batzuetara eraikiko den kolektore sarearen hasiera bat besterik ez da hau. Proiektu honen helburua Deba ibai garbi eta bizi bat lortzea da.

da, eta ez dago batere arrainik. Gipuzkoako Foru Aldundiaren ikerketen arabera, Gipuzkoako zonalderik kutsatuenak da gurea, errekarari dagokionez. Proiektu honen helburua, beraz, Deba ibaia biziberritzea da. Orain ibaira isurtzen diren zikin guztiak araztu edo de-


puratu egingo direnez, pixkanaka-pixkanaka errekarako urak garbiagotuz joango dira. Behin ibaia garbia dagoenean, arrainak botako dira bertara, erreka bizi bat lortzeko.

PROIEKTUA AZTERTZEN DIHARDUTE

Esan bezala, aste honetan bertan iritsi da Udaletxera Fulcrumek egindako proiektua. Orain, Hirigintza eta Ingurugiro batzordeetako kideen txanda da, proiektua sakonki aztertu beharko dute eta. Bizpahiru hilabetetako epea izango dute, nahi izanez gero, egoki deritzoten alegazioak Foru Aldundian aurkezteko. Hurrengo pausua, lanak lehiaketara atera, eta enpresa bati kolektore sartzeko lanak adjudikatzea izango da.


BI URTEKO LANA

Kolektore sarea jartzeko lana oso zeregin konplexu eta handia izango da. Horregatik, fase ezberdinetan burutuko



Argazkian, Badiologeko araztegia. Behin kolektore sarea sartzeari bukatzen denean, Mekolalden jarriko da antzerako araztegi bat. 16.000 m² inguruko azalera izango du.

GIPUZKOAKO UR PARTZUERGOA



Argazkian, kolektore sistema osatzen dute bi hodiak: orokorra bata, eta beste txikiago bat.

da. Lehendabiziko fasean, Mekolalde eta Matxiategi bitartean sartuko dira hodiak, eta 18 hilabete iraungo dute lanek. Ondoren, Matxiategin hasi eta Mintegirainoko zatia egingo da, eta 15 hilabete iraungo du. Hirugarren fase batean, Mintegi eta Ibarra arteko zatiari ekingo zaio, eta beste 15 hilabete beharko dira kolektorea sartzeko. Azkenik, Osintxu eta Mekolalde arteko zatian sartuko dira hodiok; bederatzi hilabete inguru kostako da lan honekin bukatzea.

Hala ere, lau faseok lau enpresa ezberdini adjudikatzeko asmoa dago. Izan ere, enpresa guztiak batera hasten badira lanean, epe luze hori 24 hilabetera murriztuko litzake.

ARAZTEGIA MEKOLALDEN JARRIKO DA

Alde batetik, Leintz adarreko eta Oñatiko ur-zikinak garbituko dituen araztegi bat jarriko da, baina oraindik zehaztu

barik dago Epelen edo Zubillagan jarriko den araztegi hori. Herri guzti hauetan, kolektoreak sartu dituzte. Bergaran, berriz, Mekolalden ezarriko dute araztegia, Narbaiza enpresak bere araztegia duen lekuaren alboan. 16.100 m²ko azalera izango du (3 futbol zelaiak

Kolektore sare osoa datorren urtean eraikitzen hastea espero da, eta, gutxienez, bi urte iraungo dute hodiak sartzeko lanek

egingo luketen azalera gutxi gora behera), eta 1.100 milioi pezetako aurrekontua.

Gaur egun, etxeetako ur-zikin guztiak hodi batzuen bitartez errekarara isurtzen dira zuzenean. Ez dago inolako arazte sistematik. Depuradora martxan jartzen denean, berriz, errekarerako paraleloki jarriko diren kolektore batzuetara bideratuko dira urok. Kolektore hauetan garraiatuko da ura Mekolaldeko araztegiraino. Horretarako, gaur egungo hodiak aprobetxatuko dira, eta errekarara isuri beharrean, kolektorera lotuko dira. Esan bezala, errekarerako paraleloki jarriko dira kolektoreak. Bi izango dira: bata, orokorra, eta beste txikiago bat. Lehendabizi kolektore txikiak iritsiko dira etxe eta lantegietako ur-zikinak. Kolektore txiki hau orokorrari komunikatuta dago zenbait tokitan, eta txikiak zikinak bertara pasatzen dira. Antzuolako eta Elgetako urak ere kolektore txiki baten iritsiko dira Bergarara.

LANTEGIETAKO ZIKINAK

Gaur egun ere lantegietako zikinak kontrolatzen diren arren, kolektorea eta araztegia martxan jartzen direnean, areagotu egingo da kontrol hau. Lantegietako zikinak kolektorera sartu aurretik, kutsadura maila jakin batetik ezin izango baitira pasatu. Muga bat jarriko zaie. Horrek esan nahi du, behar izanez gero, lantegi bakoitzak bere araztegia izan beharko duela gehienezko maila hori ez gainditzeko. Izan ere, lantegietan sortzen diren zenbait hondakin oso kaltegarriak dira, eta saneamendu sistema bera hondatuko lukete beharrezko neurriak hartu ezik.

BESTELAKO ONDORIOAK

Kolektore sarea eraikitzeak 2900 milioiko aurrekontua du. Bergarako Udala Gipuzkoako Ur Kontsorzioan dagonez, urtero diru-kopuru bat ordaintzen du, eta proiektua Ur Kontsorzioak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak finantziatuko dute. Baita Araztegia jartzea ere. Azken honen aurrekontua 1.100 milioi-koa da, lehen esan bezala. Bestalde, lanek irauten duten bitartean 25.111 m² lur okupatuko dira, eta 20.000m² inguru (horietatik 2.000m² zuzenean desjabetuko dira, eta gainerakoak, berriz, zorbide bezala geratuko dira). Guztira, 72 espropiazio egingo dira.<

KIROLAK

AGUSTIN ARANZABAL. Eurokoparen atarian

"Klausula handia dut eta ziurrenik Realean jarraituko dut"

Agustín Aranzabalek Eurokopa futbol txapelketa jokatu du. Camacho selekzionatzaileak ber gararrarengan konfiantza osoa dauka eta badirudi titularra izango dela Aranzabal.

G. Faboritoen artean dago Espainia Eurokoparako?

E. Espainiak urte askoan ez du ezer egin nazioartean, baina nahiko erraz sailkatu garenez, faboritotzat hartzen gaituzte. Hasiera batean Frantzia, Alemania, Italia eta Holanda dira faborito nagusiak, eta ea guk ere hor aurrean egotea lortzen dugun. Lehen fasea gainditu beharko dugu horretarako. Lehenbiziko partiduan nerbioek zerikusi handia izaten dute, eta Norvegiaren kontrakoa oso zaila izango da. Sailkatzekotan, partidu bakar bateko kanporaketetan, ikusi behar.

G. Frantziako Mundialean ez zenuen jokatu, baina badirudi titularra izango zarela Eurokopan.

E. Ez dakit, ez nago oso seguru. Postu bakoitzeko bi jokalaria gaude eta konpententzia handia dago.

G. Camachok zer azpimarratzen dizue?



Argazkian, Aranzabal Gerard eta Michel Salgadoekin. DV

E. Kolokazioa eta presioa asko lantzen dugu eta partiduan zehar baloiarekin erritmo handiz jokatzeko esaten digu. Bakoitzak bere tokia ez galtzeari garrantzia handia ematen dio.

G. Camachoren zerrendarekin sorpresarik?

E. Beharbada Morientes ez egotea sorpresa izan da, baina bera etortzekotan, beste norbait geratuko litza-teke kanpoan.

G. Canal Pluseko giñoletan ateratzen duten modukoa al da Camacho?

E. Oso antzerakoa. Hori bai, entrenamenduetan oso zorrotza da, baina katxondeorako tarte dagoenean ez da atzean geratzen.

G. Zelakoak dira kontzentrazio egunak?

E. Nahiko aspergarriak. Goizeko 9etan jaikitzen gara, 10etan entrenatzen gara eta 13:30ak aldera bazkal-

du. Ondoren siestatxo bat botatzen dugu, eta 18:30ean berriz entrenatzen gara. Afalostean, berriz logelara.

G. Realaren denboraldia ahazteko modukoa izan da.

E. Gaizki hasi ginen eta uste baino gehiago kosta zaigu mailari eustea.

G. Zure denboraldia?

E. Talde bat ondo ez dabilenean, jokalarien errendimendua ere ez da ona. Askok hobeto joka nezakeen.

G. Zure etorkizunaz ere asko hitzegin da...

E. Bartzelona moduko talde batek niganako interesa azaltzea eskertzekoa da baina niregana zuzenki ez dira etorri. Nire klausula handia da eta gauzak normal badoaz Realean jarraituko dut. Baina futbolista baten etorkizuna egun batek bestera aldatzen da, eta auskalo zer gertatzen den Eurokopa eta gero.

G. Zer egin dezake Realak datorren urtean?

E. Aurtengoa ez erreplikatzeko badirudi aldaketa asko izango direla taldean. Dena den, Espainiako liga oso parekatuta dago eta zaila da UEFAn sartzea. Hala ere, gauzak normal joanda, erdialdetik gora egon beharko ginateke.

Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...

Irizar pasealekua 2 behea
☎ 943 76 59 54 BERGARA

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

DEBA
GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telesforo Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

Bildurbarek taldeak futbitoko kopa eskuratu zuen zapatuan

Bildurbarek taldeak 3-2eko emaitzarekin irabazi zion Errotagaini futbito txapelketako kopako finalean, zapatuan Kiroledegian. Errotagainekoak aurreratu ziren markagailuan Jose Mari Romerok lortutako golari esker baina Bildurbarekek markagailuari buelta ematea lortu zuen, Karlos Lasak (2 gol) eta Ibon Larrañagak egindako golekin. Partidua amaitezar zegoela, Aitor Antonek 3-2koa egin zuen. Errotagain ligako txapeliduna ezin izan zuen dobletea lortu eta Bildurbarek taldeak merezimendu osoz lortu zuen garaipena. Domekan, bi taldeak berriz ere aurrez



Argazkian, aurtengo futbitoko kopako txapelidunak.

aurre izango dira txapelidunen arteko partiduan, 12:00etan Kiroledegian.

Bestalde, Lagunak elkar-teak laister ekingo dio datoren urteko edizioa antola-

tzeari. Izen-ematea datorren astean zabalduko da eta txapelketaren XV. edizioa San Martin jaien ostean jarriko da martxan. Aurten 40 talde izan dira lehian.

Jorge Aranes teniseko txapelidun

Jorge Aranes bergararrak irabazi zuen domekan Bergarako III. Tenis Txapelketa, Kiroledegian jokaturako finalean Javier Olaso bilbotarrari hiru setetan nagusitu ondoren. Lehenbiziko seta galdu arren (2-6) Aranes hurrengo bietan nagusitu zitzaion Olasori (6-2 eta 6-4). Partidua ikusgarria gertatu zen. Finalaren aurretik 3. eta 4. postuetarako partidua jokatu zen eta Jose Caballero arrasatearrak Eneko Ugalderi irabazi zion, 6-4 eta 6-1eko emaitzekin.



Jorge Aranes txapeliduna, Eneko Ugalde, Nere Amaia Zabala kirol zinegotzia eta Javier Olaso.

Begarako tenis txapelketan 26 jokalaririk izan dira lehian. Txapelketa Debagoienerako autengo zirkuitu-

rako lehen proba puntuagarria izango da. Hurrengo tenis txapelketa bihurtik aurrera Oñatin jokatu da.

KARTELDEGIA

IPINTZAKO FUTBOL TXAPELKETA
ADIN MUGARIK GABEKO TXAPELKETA

Bihar, zapatua

12:45. Beccia-Osintxu

14:00. Fatxurtu-Altos Pornos

Ekainaren 5ean

19:15. Down-Hotel Amusikibar

20:30. Fo Fo Fo-Arloteak

Ekainaren 6an

19:15. Ezinleike-

A Ze Flaxa Guipuzcoana

20:30. Txokokuak-Bildurbarek Opel Lam

NESKEN TXAPELKETA

Ekainaren 7an

19:00. Eka-Eibartarrak (kadeteak)

19:00. Gu ta gutarrak-Antzuola K.E.

(kadeteak)

20:00. Baleike-Aldrebesak (kadeteak)

20:00. Pentol's Team-Elgeta (seniorrak)

21:00. Antzuola K.E.-Potzu (seniorrak)

21:00. Lai-Lai-Lai-Ogizun (seniorrak)

BETERANOEN TXAPELKETA

Ekainaren 8an

19:30. Sora-A Ze Flaxa

19:30. Os jardineiros-Aintzinakoak

20:30. Txipiron-Guipuzcoana

20:30. Canalejas-Arloteak

federatuen emaitzak

FUTBOLA

Bergara 9; Soraluze 3

Lehen mailako jubenilak

Luberri 2; Bergara 3

Bigarren mailako jubenilak

SASKIBALOIA

Bergara 88; Intxaurren 43

Kadete mutilak

ESKUBALOIA

Legazpia 24; Bergara 21

Senior mutilak

Bergara 24; Urola 31

Kadete mutilak

ARRANO



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA



OGIZUN

koop. elk.
okindegia

San Pedro 21
BERGARA

943 76 20 49

Zubillaga z/g
OÑATI

943 78 24 13

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots,
untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

kronika kadete mutilen saskibaloitza

Ezin mailaz igo kadeteak

BERGARA 88

INTXAURRONGO 43

Bergara: Denis Jimenez (3 puntu), Ugaitz Eguren (2), Iban Alonso (6), Asier Larrañaga (9), Jon Beistegi (31) -hasierako boskotea-, Iñaki Mondragon (3), Peru Azkarate (10), Aitor Ugarte (7), Isuzko Igarza (7), Jokin Biain (2) eta Ibai Etxeberria (4).



Argazkian, epailea jokoari hasiera emateko orduan.

Nahiz eta ligako azken partiduan garaipena eskuratu, Bergarak kadete mutilen saskibaloitza ezin izan zuen lehen mailako kadete mailara igotzea lortu, Goierri Ordiziari irabazi baitzion azken jardunaldian, eta bereaiek izango dira azkenean mailaz igoko direnak. Bergarak oso erraz

menderatu zuen Intxaurrondo zapatu eguerdian Kiroldegian jokatutako partiduan. Hasieran, donostiarrek nahiko ondo moldatu ziren defentsan zein erasoan, eta Bergarak ez zuen bere maila erakutsi, gehiegizko konfidantzagatik be-

harbada. Izan ere, Intxaurrondok ez du partidu bakar bat ere irabazi liga osoan zehar, eta bergararrek garaipena lortzea erraza izango zela pentsatuko zuten. Esan bezala, hasierako minutuetan markagailua nahiko berdinduta izan zen, baina le-

hen zatiaren erdialdean etxekoek 17-0eko partziala egin zioten Intxaurrondori. Hortik aurrera, partidua erabakita gelditu zen, eta David Urbinak entrenatutako taldeak ez zuen arazorik izan abantailari eusteko.

Joko hobea egiteaz gain, bergararrak nagusi ziren errebotetan, altura handiagoko jokalaria baituzte mahoneroek. Hori gutxi baltiz, Intxaurrondok sei jokalarirekin aritu behar izan zuen partiduan, eta horrek ere eragina izan zuen markagailuan horren alde zabal lortzeko. Berriz ere Jon Beistegi izan genuen saskiratzaile onena, eta Isuzko Igarzak ere hiruko saskiratzeetan bere maisutasuna azaldu zuen.

Dena den, eta garaipena eskuratu arren, David Urbina ez zegoen guttiz pozik partidu amaieran: "gure helburua lehen mailara igotzea zen. Saikapeneko lehen hamarrek zuten igotzeko eskubidea eta hamaikagarren geratu gara. Etxean Ordiziarren aurka eta Oñatin galtzeak kalte handia egin zigun". Astebukaeran Kutxa txapelketari ekingo dio Bergarak.

UXUE LAZKANO / Nesken futbol taldeko jokalaria

"Finalean ez nuke penaltietara iristea nahi"

Bergarako nesken futbol taldeak kopako finala jokatuko du bihar, zapatua, 16:00etan Orion, Zarauzko Antonianoren aurka. Uxue Lazkano kapitainak trofeoa altxatzeko itxaropena du.

G. Zein talde da faborito bihar?
E. Final guztiak bezala, partidu gogorra izango da. Antonianoren aurka ez dugu aurten jokatuko, baina beraien kontra neurtu garen guztietan hortxe-hortxe ibili gara. Pronostiko bat? 1-0 gure alde.

G. Duela hiru urte ere finalera iritsi zineten.

E. Bai. Orduan penalti jaurtikitetan galdu genuen partidua. Baina, galtzekotan, penaltietara

heldu aurretik nahiago dut galtzea.

G. Zein da zuen taldearen alde ona?

E. Erdialdea. Taldea nahiko orekatua da, baina erdian jokalarionak ditugu, eta horrek sendotasuna ematen digu.

G. Zu zein postutan aritzen zara gustorago?

E. Lehen erdialdean jokatzen nuen, baina azkenaldian atzean nabil, esku-man. Egia esan, berdin dit non jokatuko. Aurrealdean jokatzea biziagoa da, baina konforme na-

go edozein tokitan jokatuta ere. Aurten atezain egotea ere tokatu zait noizbait...

G. Sasoi onean iritsi zarete finalera?


E. Nahiko nekatuta, ligan eta kopan partidu dezente jokatuko ditugulako.

Baina gure aurkariak ere antzera ibiliko dira.

G. Zalegoaren laguntza inportantea izango da.

E. Ea jendea Oriora joateko animatzen den. Zaletuen laguntza beti eskertzen da zelaian.





Euskararako prest!

Udako ikastaroak • Barnetegiak

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Eskaintza

EUSKALDUNTZE maila guztiak, ALFABETATZE eta EGA.

Erritmoak

Egunean 5 ordu, goizez.

16 urtetik gorakoentzat.

Bulego ordutegia

Goizez: 09:00-13:00 • Arratsaldez: 15:00-19:00

Ikastaroaren iraupena

Ekainaren 26tik uztailaren 21era.

Matrikulatzeko epea

Ekainaren 7tik 22ra.

Barnetegia

Uztailaren 1etik 15era ZERAINEN.



BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Zabalotegi, 13 • BERGARA
Tel.: 943 76 44 53

berg.eusk@udal.gipuzkoa.net
ber.euskudal@euskalnet.net

Pizza aukerarik zabalena!



Artekalea 1, BERGARA.

Zapatu eta domeketan eguerdian zabalik'

Asteburuetan etxex-etxeko zerbitzua

ETXERA ERAMATEKO EGUNEKO MENUA ere badaukagu!

ENTZALADAK

ENTZALADA MISTOA. 600
ARROZ ENTZALADA. 625
OILASKO ENTZALADA. 650
PASTA ENTZALADA. 625
GANBA KOKTELA. 700
PIPER ETA ANTIXOA PINTXOA ROKEFORT SALTSAZ. 750



PIZZAK

MARGARITA (Oreganoa, piperbeltza, albaraka). 775
TIPULA. 850
FUNGHI (Txanpinoiak). 975
BEGETALA (Kalabazina, tipula, esparragoa). 975
PEPERONI (Pikillo piperra, berakatza). 1.125
ROKEFORT. 950
4 GAZTA (Gazta nahasketa). 1.075
NAPOLI (Antxoak, olibak). 950
TONNO (Atuna). 975
DI MARE (Ganbak, antxoak, muskuiluak, atuna). 1.100
IZOKINA (Izokin ketua, tipula). 1.125
PROSCUITO (York urdaiazpikoa). 1.000
MEXIKARRA (Okela pikatua eta berakatzarekin). 1.075
4 STACCIONE (York, alkatxofak, txanpinoiak). 1.075
BOLOGNEA (Okela pikatua). 1.075
EULALIA (Piper berdeak, hirugiharrea). 1.075
BASERRI (Txorizoa, hirugiharrea, arraultza). 1.125
ARTEKALE (Okela pikatua, arraultza, pikillo piperrak). 1.125
HONDDOAK. 1.500
TROIKALA (Piña, York urdaiazpikoa). 1.075



Orain telefono zenbaki berria:

943 76 25 37

PASTA

SPAGHETTI BOLOGNEA. 875
SPAGHETTI CARBONARA. 875
SPAGHETTI MINA BERAKATZAREKIN
ETA PIKANTEAREKIN. 875
FUSILLI ROSSA. 900
TAGLIATELLE. 900
RIGATONI 4 GAZTA. 900
UKONDOA ESPINAKA SALTSAKIN. 900
OKEL eta GAZTA RAVIOLIAK. 950
NIDOS AL PESTO. 900
LASAGNA. 950
BARAZKI eta OKEL KANELOIAK. 900
KALABAZIN BETAOK. 900
ARRAIN LASAGNA. 950



EBaki heremndik eta eraman beti aidean egozatsi zure hozkailuan!



1. ETXEBIZITZAK

SALDU

Zubiaurre. 943 76 30 46 / 21 84.

San Antonio. Deitu 943 76 15 06 telefonora.

Koldo Eleizalde. 943 76 50 86 (gauetz).

Artekalea. Deitu 619 326 228 telefonora.

Iraburu kalea (Bolu). 943 76 08 47 (gauetz).

ERRENTAN EMATEKO

Benidormen. 943 76 63 21 / 06 28.

Laredon, hondartza ondoan. 943 79 52 80.

Pisua alokairuan Donibane Garazin asteburuetarako edo gehiago. 00 33 559 371 666.

Bungalow bat Torreveijan, udan. Hondartzatik gertu. 943 78 14 72.

ERRENTAN HARTZEKO

Pisua edo logela hartuko nuke alokairuan Bergaran edo inguruan.

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK
Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK
Agurrak
Kontaktua
Deiak
Bestelakoak

Arruriagan (18m²) lokalak alokairuan. 606 96 23 80.

Lokala alokairuan Martokoa. 943 76 11 13.

4. LANA

ESKAITZAK

Emakumea etxeko lanak egiteko gertu. 666 643 490 (Herminia).

Auxiliar lana egingo nuke. 616 848 362 (Monika).

Mutila edozertan lan egiteko gertu. 600 600 531.

Neska edozertan lan egiteko gertu. 646 611 383.

Dendako lanetan esperientzia duen emakumezkoa lanerako gertu. 943 76 07 69.

ESKAERAK

Emakumea behar da Antzuolan etxeko lanak egiteko. 943 787 106.

Arrasaten umeak zaintzeko pertsona behar da. 943 77 04 31.

Emakumea behar da

2. GARAJEAK

SALDU

Deitu 646 975 367 telefonora.

Pisua hartuko nuke alokairuan. 943 76 04 70 / 11 01.

ETXE KONPARTITUAK

Donostiako erdialdean pisu handia konpartituko nuke urte osoan. 670 087 427 (Ainhoa).

Etxea konpartituko nuke. 627 046 374 (Diego).

Pisua osatzeko neska behar da. 943 76 55 26.

Bolu. Prezio ona. 943 76 47 99 (gauetz).

Bolu. 2 plaza. Deitu 616 049 865 telefonora.

Antzuolan, Zurategin. 943 76 64 00.

Antzuola, Kalegoi. 943 76 47 16.

Masterreka. Deitu 696 460 406 telefonora.

Ozaeta. 943 76 73 00.

Garajea salgai Bolun. Deitu 943 76 19 6 telefonora.

ERRENTAN EMATEKO

Garajea alokairuan Boni Laskurainen. 943 76 47 67.

Garajea alokairuan Zubiaurren. 943 76 23 53.

Garajea alokairuan Santa Marinaran. 943 76 41 88.

ERRENTAN HARTZEKO

Zubiaurren garajea hartuko nuke. 943 76 08 26.

3. LOKALAK

EROSI

Lokal komertziala erosi nahi nuke S. Lorentzon. 300 m². Deitu 607 82 53 06 telefonora.

ERRENTAN EMATEKO

Bolun (100 m²) eta

Bergarako Udala

Begarako Udala Lehiaketa oposizio bidez aldi baterako **KIROL ZIKLOETAKO KOORDINATZAILEA** kontratatzea doa



LEHIAKIDEEN BALDINTZAK:

- Magisteritzako diplomatura eta Kirol Heziketan erreziklajlea edo Hezkuntza Fisikoan lizentziaturaren 3 kurtsu gaindituta izatea.
- 3. Hizkuntza eskakizuna derrigorrezkoa.

Instantziak aurkezteko epea ekainaren 23an, 13.30etan bukatzen da. Oinarriak idazkaritzako bulegoetan.

Bergaran, 2000ko maiatzaren 31n. **ALKATEAK**

Trailerra gidatzeko TXOFERRA behar da

943 76 47 34

OFICCE ETA VISUAL BASICen aditua den pertsona behar da informatika denda baterako

943 76 91 27

Jatetxerako GARBITZAILEA behar da

943 76 20 38

Aramaioko ILEAPAINDEGI baterako langilea behar da

945 44 50 35 / 52 94

IKASTARO TRINKOAK

Uztailan aukera paregabea duzu zure ingelesa hobetzeko

Ekainaren 29tik uztailaren 28ra

Haurrak, gazteak eta helduak
1, 2 edo 3 ordu egunero

INFORMAZIOA:
Ibargarai 31, barruko plaza.
Tf. eta faxa 943 76 03 53.
Asteleheneretik eguakitzera 10:00-12:30.



School of English espolonschool@teeline.es

umeak zaindu eta etxe-ko lanak egiteko.
943 76 08 25.

Emakumea behar da etxe-ko lanak egiteko. Irailatik aurrera.
943 76 08 08.

Emakumea behar da etxe-ko lanak egin eta haurrak zaintzeko.
943 76 35 11.

5. IRAKASKUNTZA

ESKAINTZAK

Klase partikularrak ematen ditut, maila denetan. 656 752 739 (Ainara).

Ingeles klaseak ematen ditut: OHO-DBH. Ekaina eta uztaila.
943 76 54 12 (Irene).

Kitarra, soinu eta pandero klaseak ematen ditut. 943 76 45 73.

ESKAERAK

Pascal programako klaseak hartuko nituzke (injinerutza, 1. maila).
943 76 10 44.

Injinerutzako 2. mailako C programari buruzko klaseak hartuko nituzte.

Deitu 943 78 09 66 telefonora.

Logseko 1. mailako fisika, kimika eta matematikako klaseak hartuko nituzke. 943 76 10 44.

6. IBILGAILUAK

SALDU

Scooter motorra. Skipper 125. Matrikulatua.
943 76 61 05.

Motorra. 220.000 pta.
943 76 03 72.

Opel Kadett (SS-AL). 667 209 279 (Iker. 18:30etik aurrera).

Ford Escort 16V familiarra (SS-BB).
943 79 91 27.

Seat Ibiza (SS-AC). 150.000 pta.
943 72 22 77.

Kawasaki GPZ 400 FII motor beltza. 31.000 km. 150.000 PTA.
943 70 21 11.

Cagiva Custom 125 motorra. 3.800 km. 120.000 pta.
943 76 03 72.

Scooter 50cc, Gilera Runner. Ia berria. 686 704 693 (Asier).

Seat Ibiza 1.2 (SS-AP). 64.000 km. Prezio ona.
943 76 28 01.

Cagiva Roadster motorra. 3.800 km. 220.000 pta. kaskoa eta kandadua opari.
943 76 03 72.

Kymko Chooper 125 errepideko motorra. Prezio onean.
610 972 250 (Anton).

7. ANIMALIAK

SALDU

Cooker ingeles txakurkumeak. Merke. Hil eta erdi. 636 877 574.

Katuak. Oso merke. Siamesak. Hilabete. 943 76 24 13 (Maite).

Artzain txakurrak salgai. 656 728 500.

8. DENETARIK

SALDU

Mendiko bizikleta. 4-7 urte arteko umeendako.
943 76 03 74.

365 Roller karabana. Egoera onean.
610 260 744.

Kirol arkuak eta

osagarriak salgai.
943 76 08 18.

Butano sua salgai.
636 877 574.

Jangelako mahaia eta 6 aulki. 943 76 34 48.

Pianoa salgai. Oso merke. 943 76 26 35.

Mendiko bizikleta bi. Merke. 943 76 15 76.

Yashica 108 Multiprogram kamera.
943 76 08 27 (20:00-22:00).

EROSI

Txanpon zaharrak erosi-ko nituzke. 639 822 790.


AURKITU

Ibarrondo auzoan aurkitutako bi giltza Antzuolako udaletxean daude.

9. HARREMANAK

DEIAK

Kuba edo Dominikar Errepublikara joan nahi dugun bi lagun gara. Gurekin etorri nahi baduzu, deitu lehenbailehen: 943 76 91 27 (Aitor).



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

DIESEL MOTOREEN MEKANIKARIA
Bilbo. 30372/4

PROGRAMATZAILEAK, 10
Bilbo. 31853/3

ILEAPAINATZAILEA
Bilbo. 32428/3

LURSAILEN PROSPEKZIOAK EGITEKO 3 PERTSONA
Bilbo. 32529/6

ELEKTRIZISTA
Bilbo. 32752/6

DENDARIA
Bilbo. 32895/5

KOMERTZIALA
Bilbo. 32932/4

KOMERTZIALA
Arabar lautada. 33074/1

PLANTXAGILEA-MARKATZAILEAK, 2
Bilbo. 33192/1

ESKAIOLA JARTZAILEA
Donostia. 33301/7

PROGRAMATZAILEA
Bilbo. 33365/3

INKESTATZAILEA
Debagoiena. 33602/2

INFORMATIKA PROGRAMATZAILEAK, 40
Bilbo. 31827/3

IGELTSEROA
Goierri. 32418/7

PEOIA
Bilbo. 32441/4

LANBIDE HEZKUNTZAKO TEKNIKARIAK MEKANIKAN, 3
Arabar lautada. 32450/1

TORNULARIA
Tolosa. 32742/2

ELEKTRIZISTAK
Arabar lautada. 32545/6

SUKALDARIA
Plentzia. 32593/5

APAREJADOREA
Arratia. 32730/5

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.
Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era.
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

FRANTSES IRAKASKUNTZA

Ikastaro trinkoak uztailearen 3tik 21era

Izena emateko epea: ekainaren 30era arte.



Informazio gehiago:

Mizpildi 3, 1-ekerra. BERGARA.
Tf. 943 76 30 55
Ordutegia: 10.00-12.00 eta 17.00-19.00

GOIZ ARGI

Etxez etxeko zerbitzua

Lan poltsa osatzeko eta oporraldiak betetzeko deialdia.

Arrasaten eta Antzuolan etxez-etxeko zerbitzuan lan egiteko.

**Informazioa eta eskariak:
943 76 72 16**

Haurren XXVII. Euskal Jaia domekan

Bergarak talde berria aurkeztuko du: Gazte Alai, gazteez osatutako taldea

Dantzari, musikari eta laguntzaileen artean, 900dik gora lagun bilduko dira XXVII. Euskal Jaian. Hauek 700 inguru kanpoko herrietatik hurbilduko dira. Aurtengo berritasun nagusia, Bergarako "Gazte Alai" taldearen aurkezpena da: Aranzadi, San Martin eta Mariaren Lagundia ikastetxeetako 6 eta 16 urte arteko dantzariak biltzen dituen, hain zuzen ere.

Goizeko 10:30ean bilduko dira dantzari guztiak Seminarioko futbol zelaietan, 15 dantza talde orotara. Kanpotik honako taldeak hurbilduko dira: Azkoitiko Kandiola, Antzuolako Oinarin, Arrasateko Txikitxu eta Lore Gazteak, Aretxabaleto Loramendi, Oñatik Oñatz, Soralezeko Urrats, Urretxuko Lurra, Altsasuko Altsasu, Oreretako Ereintza eta Gorlizeko Aratz. 700 lagun inguru dantzari, musikari eta laguntzaileen artean.

Bergarari dagokionez, lau taldek hartuko dute parte: Aranzadi, Mariaren

Lagundia eta San Martin ikastetxeetakoek, hau da, 4 eta 6 urte arteko neska-mutikoez osatutako taldeak, eta Gazte Alai. Azken hau sortu berria da. Estreinakoz egingo du dantzan, eta 6 eta 16 urte arteko neska-mutikoez osatzen dute.

Seminarioan hamarretakoa egin ostean, 11:30ean, San Martin plazan alkate eta alkatesa txikiek ongi etorria emango diete dantzari guztiei. Ostean, 11:45 aldera, bertako zein kanpoko taldeek dantzaldiak eskainiko dituzte herriko kaleetan zehar. 13:30ean, haurrak bazkaltzera joango dira. Bazkaldu, herriko bost elkartetan egingo dute, nahiz eta bazkaria antolatzen hogeitau elkartek parte hartu.



Bederatziehun lagun inguru elkartuko da Haurren Egunean.

ARTXIBOA

Arratsaldean, Seminarioan elkartuko dira 17:00etan, eta kalejiran San Martin plazara joango dira. Plazan, dantzen alardeari ekingo diote. Mutilek Jorrai dantza, Txakarrankoa eta Banakoa eskainiko dituzte. Neskek Makil txiki, Gipuzkoako zinta dantza eta Arku dantza. Elkarrekin, Ikurrin dantza, Txulalai eta Zapatain egingo dituzte.

Gazte Alai, dantza talde berria



Azken urteetan behera egin du dantzarako izena ematen duen neska-mutikoen kopuruak. Hori horrela izanik, eta dantzak Bergaran biziraun dezan, Xamatx dantza taldeko arduradunak irtenbide baten bila aritu dira azken hilabeteotan.

Bi dantza talde egon dira orain arte herrian, Xamatx dantza taldea, nagusiena, eta Aranzadi Ikastolako taldea, haurrena.

Hori horrela izanik, Xamatxekoek honako irtenbidea topatu diote: neska-mutikoak lortzeko, herri mailara zabaltzea eskaera. Hau gauzatzeko, Aranzadi, San Martin eta

Mariaren Lagundia ikastetxeetan 4 eta 6 urte bitarteko haurren harrobia sortu da; Gazte Alai, sortu berri den dantza taldeko harrobi izango dena. Izan ere, ikastetxeetako haurrek 6 urte dituztenean, Gazte Alaira igaroko dira.

Gazte Alai 6 eta 16 urte bitarteko haurrek osatzen dute. Bestalde, 30 pertsona dabilta irakasle eta arduradun. Horrez gain, hiru ikastetxeetako neska-mutikoak eta Gazte Alai taldearen arteko koordinazio lanak Itsaso Mendikutek eta Arkaitz Aranak egingo dituzte.

CAMACHO
 Drogeria Usaindegia
 Bidekurutzeta 24 BERGARA
 ☎ 943 76 13 35

IRURAK PINTURAK S.L.

ERA GUZTIETAKO LANAK	PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA	HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA	IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
 TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
 FAXA: 943 76 09 32

Usoa Pub

☎ 943 76 38 57
 Irala 1



Oliver komedia musikala, Orfeoiazen 75. urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldien barruan estreinatzen zen 1999ko maiatzaren 8an.

ARTXIBOA

Oliver musikala Gipuzkoako lau bailaratan eskainiko da

Oliver komedia musikala, Gipuzkoako lau bailaratan eskainiko da: Deba Bailaran, Urolan, Goierrin eta Donostialdean hain zuzen. Azken hila-beteetan, Oliver lana aurrera eraman zuten hainbat kide Gipuzkoako Foru Aldundiko Lorea Leanizbarrutia, Euskara departamentuko buruarekin bildu izan dira. Bilera hauen helburua, Oliver obra Gipuzkoara zabaltzeko laguntza lortzea izan da; Diputazioak kostoaren erdia ordaintzea hain zuzen ere.

Baiezko ofiziala oraindik jaso ez duten arren, Foru Aldundiak interes handia du ekimen honetan, Manu Diaz, obraren arduradunetako batek esanda-koaren arabera. Bestalde, datorren astean Diputazioan bilduko dira eta seguru-erik baiezkoa jasoko dutela aurrera-tu du Diazek.

Emanaldi nagusia Donostian izan-go da, Kursaal-en, ETB bertan dela. Emanaldiak urrian hasi eta abendura bitartean eskainiko dira.

salduenak maiatza

LIBURUAK

EUSKARAZ

1. ETA EMAKUMEARI SUGEAK ESAN ZION
Lurdes Oñederra. Erein
2. GRIMM ANAIEN IPUINAK
Pamiela
3. UDAKO FESTAK
Gipuzkoako Foru Aldundia
4. ARTAZIAK
Joan Mari Torrealdai. Susa
5. EULIAK EZ DIRA ARGAZKIETAN...
Juan Mari Iturralde. Erein


ERDARAZ

1. LA CARTA ESFERICA
Arturo Perez-Reverte. Alfaguara
2. EL AMANTE LESBIANO
Jose Luis Sampedro. Plaza y Janes
3. LA FIESTA DEL CHIVO
Mario Vargas Llosa. Alfaguara
4. AHORA HABLARE DE MI
Antonio Gala. Planeta
5. O DE ODIO
Sue Grafton. Tusquets
Iturria: Etxepare-Bilintx, Peñalba, Zangitu

DISKOAK

1. URA
Oskorri
2. ZUZENEAN
Ruper Ordorika
3. OOPS! DID IT AGAIN
Britney Spears
4. BRAVE NEW WORLD
Iron Maiden
5. GOIZ EDO NOIZ
Etzakit
6. BIZITZA TRISTE ETA EDERRA
Joxe Ripiau
7. UNPLUGGED
Mana

Iturria: Etxepare-Bilintx, Zaiazko



Gojenolaren margoak iragarriko du txekorketa

Koldo Gojenola pintore eibartarrak irabazi du Zezen Zaleak taldeak antolatutako Abdon Juaristi III. Pintura lehiaketa. Pentekoste jaietako domekan egiten den txekorketa iragartzeko kartela aukeratzeko antolatu ohi da. Sari banaketa joan zen zapatuan izan zen, Gure Ametsa elkartearen. Bertan Koldo Gojenolak, 150.000 pezetako saria jaso zuen. Aurten 17 pertsonak hartu dute parte lehiaketan. Kuadro sarituak, zezena kapotera jotzen erakusten du, eta fondoan Santa Marina eliza.

LAKET
gizon & emakume
Barrenkalea 35 BERGARA

**INFERNUKUA
TABERNA**
Masterreka 23 ☎ 943 76 18 49

Zuri Beltz margoak
Barnealde eta kanpoaldearen erreforma,
pintura zerbitzu osoa eta mokatak
943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59

denborapasa

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

LUMIA

Ezker eskuma

- 1. Ezizenak. 2. Arrasatear. 3. Garoa. Sortu zintuena. Erbioa.
- 4. Hesola. Ardi, hitz elkarketan. 5. Barazki ezaguna. Etxafuego. 6. Intsektu-mota. Gabeziak.
- 7. Uranioa. Lokarria. Ukapen. 8. Har ezan! Rötetgen.
- 10. Portua. Naukate.

Goitik behera

- 1. Ahalmenak. 2. Orrazteko tresna. Burdinola.
- 3. Infin. , irakatsi. Interjekzioa. 4. Herri hizkeran, eta. Bokala. Gorra. 5. Buztanak. Kontsonantea. 6. Mahaiaren gainaldea estaltzeko oihal. Bibliako pertsonaia.
- 7. Juntagailua. Herri hizkeran, zer. Ikas eta Ari.
- 8. Neona. Adi ezazue! Bokala. 9. Ahuntzaren arrak. Kanpo.
- 10. Hanturaren aurkako botika.

Soluzioa

- 10. Kortikoine.
 - 9. Akerrak. At.
 - 7. Eta. Ze. Ika. 8. Ne. Atzue. U.
 - 5. Isatsak. R. 6. Zama. Adan.
 - 3. Irakats. OI. 4. Ta. E. Sorra.
 - 1. Gaitasunak. 2. Orrazai. Ola.
- Goitik behera*
- 9. Alorak. An. 10. Kaxa. Naute.
 - 7. U. Soka. Uko. 8. No. R. Die. I.
 - 5. Aza. Suztiri. 6. Sitsa. Ezak.
 - 3. Ira. Ama. Er. 4. Taketa. Art.
 - 1. Goitizenak. 2. Arrasateko.
- Ezker eskuma*

bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibar

Kale honi izena eman dionak Buenos Aires fundatu zuen 1536an eta Asuncion 1537an; Paraguayko gobernadore izatera helduz. Nor zen eta zein urtetan jaio zen?

galde debalde

Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezuen!

1. Los Suaves taldeak joko du gaur Jamen. Zein da beraien azken diskoa?
A- Locos por incordiar
B- Colchonero hasta la muerte
C- Vispera de todos los santos
2. Zein izan da Bergarako III. tenis txapelketako irabazlea?
A- Javier OIaso
B- Jorge Aranes
C- Sergio Casal
3. Nor izan da Abdon Juaristi margo lehiaketako irabazlea?
A- Koldo Gojenola
B- Iker Xabier Markuartu
C- Juan Jose Altuna

Super BM

Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria, **Maite Bengoarentzat** izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Maiteri! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Ozaeta jauregia** Galde Debalde: **1-B, 2-C, 3-B**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: 2: 3:

Izen-deiturak: Telefonoa:

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

Koipe
oliba-olioa, 1º, litroa
389 PTA!
Super BMen beti eskaintzarik onenak!

Turismoko ikasketak egin zittuen Maria Eugeniak. Bederatzi urte daroia Ecuador Bidaietan lanian, jendearen ametsetako bidaiak antolatu eta saltzen. 33 urte dittu, ezkontuta dago, eta zazpi hilabeteko alabatxoa dauka.

Lan askorekin ibiliko zarete garai honetan, ezta?

Ba bai, eta aurten gainera sekula baiño gehixagokin, Aste Santua, Pazkuak eta udako oporrak elkarrengandik inoiz baiño gertuago tokatu diralako.

Aurtengo udan nora doa jendea gehienbat?

Danetik dago, ez dago destino finko bat.

Eta zeu?

Oraindik ez dakigu, baiña oso urrin ez, ume txiki bat daukagu-ta.

Hondartza ala mendixa?

Ez jat inporta, bixak gustatzen jat. Toki berririk ikusi eta ezagutzia da bilatzen dotena.

Nahi adiña diru edukiz gero, nora jungo ziñake?

Gustora jungo nintzake Indiako iparraldera, hegoaldean egon nitzan-eta orain dala urte batzuk.

Egin dozun bidaiarik polittena?

Mexikon oso ondo pasatu neban, asko gustatu jaten bertako jendia eta girua.

Bidaia erromantiko ideal bat?

Nahi izanez gero edozein bidaia izan leike erromantikua, baiña bat esatekotan, igual fiordoetara.

Eskolan, geografiako klaseetan, onena izango ziñan, ezta?

Ba ez, nik aprobatzeko ikasten neban. Horrelako gauzak gero ikasten dira, lanian.

Maria Eugenia Basterra

Bidaiatzeaz aparte, ze beste afiziño daukazu?

Pasiatzia.

Euskal Herriko tokirik polittena?

Urbia.

Triste jartzen zaittuan zerbait?

Heriotzan pentsatziak; bai nere ingurukuen heriotzian, eta baita neurian be.

Eta pozez saltoka?

Orain, neure alabatxuak.

Amets bat?

Euskal Herriak, euskaldunok, bakia lortzia.

Zure bertute eta defektu bat?

Bertutia, beti egixa esaten dotela; defektua, berriz, "prontua" daukatela, azkar haserretzen naizela.

Miresten dozun pertsona bat?

Nere ama.

Zure ama...

Nere ama dalako; ama bat ama bat da.

Zer da bestiengan gehixen apreziatzen dozun?

Zintzotasuna, ez deixiela ezertxo be ezkutatu.

Eta bikotearengan?

Zintzotasuna, baiña baita detailistia izatia be. Neri demostratzia maitte nauela, berandako inportantia naizela.



Kantu ikastaroa

Mikel Markezen eskutik


20 ORDUKO IKASTAROA.
Denon artean erabakiko dugu ordutegia

3.000 PTA BAZKIDEEK
3.500 PTA GAINERAKOEK


Ikastaroaren bukaeran
Kantu Liburutxo bat
agitaratzeko asmoa daukagu.



Ardo dastaketa ikastaroa



Ardoa eta bere inguruko gai guztiei buruzko ikastaroa



Irakaslea
Mikel Garaizabal,
enologoa eta sumillerra

Egunak

Ekainaren 27a, 28a eta 29a eta
uztailaren 4a eta 5a

Ordutegia

19:00etatik 21:00etara.

Lekua

Kartzela Zaharra

Prezioa

5.500 pta. bazkideek; 6.000 besteek.

Gehienezko kopurua

24 lagun

Izena emateko azken eguna

Ekainaren 20a

Informazioa eta izena ematea: 943 76 36 61 / 08 19



Antzuolan maristetan, 1957

Argazkia Antzuolan, 1957. urtearen inguruan ateratakoa da. Garai hartan maristen eskola zegoen Antzuolan, eta bertako mutil gehienek maristetan ikasten zuten. Eskola 1970ko hamarkadaren hasieran desagertu zen, bokazio faltagatik batez ere. Maristek ez zuten erreleborik izan eta gaurko Antzuolako Gazte-txearen inguruan zegoen eskolak ateak itxi behar izan zituen. Mutilak bakarrik jasotzen zituzten maristek, eta lehen hezkuntzako klaseak ematen ziren. Goiko argazkian agertzen direnek 7-13 urte bitartean izango zituzten orduan. Francisco Calvo marista zen beraien maisua eta ikastetxeko zuzendaria Carlos izeneko euskalduna. Maristetan amaitu ondoren, gehienak Bergarara etortzen ziren, Lanbide Heziketako eskolan jarraitzeko. Argazkia eskolaurrean ateratakoa izan daiteke, udaberri aldean dirudie-

nez, mutiko gehienak praka motzetan eta manga motzeko alkondarekin agertzen baitira. Irri-fartsu, ikasturtearen amaiera somatuko zuten ordurako... Hara hor beraien izenak:

Goian: Pedro Joxe Lete, Jose Zabaleta, Carlos, Jose Luis Zabalo, Miguel Igarza, Angel Igarza, Juan Jose Azkarate, Juan Bixente Artolazabal, Santi (Segurakoa), Juan Gabriel Urriategi eta Pedro Mari Irizar.

Erdian: Juan Mari Larrañaga, Mikel Lete, Jose Ignacio Jauregi, Pedro Olaortua, Jesus Zabalo, Felix Berraondo, Jose Ignazio Badiola, Manuel Aranburu, Jesus Arregi eta Juanito Azkarate.

Behean: Remigio Zabaleta, Jose Antonio Igarza, Miguel Angel Artolazabal, Patxi Azkarate eta Felix Aranburu.

Argazkia: Juanito Irizar

Dixula

**BOKATAK
DAUZKAGU**

Barrenkalea 32
Tf. 943 76 44 95



umelaga

JATETXEA

58 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

BAUSCH & LOMB

Ukipen lenteak

Gustuko dut sentrazio hori.
Nire ukipen lenteak ipini eta ahaztea. Kirola egin, gauean kalera irten... Ahaztu egiten zait.
Gainera, Euroopticos-en nahi dudana daukat: hilabeterakoak, egunerakoak, baita koloretakoak ere...

PUREVISION™
(balafilcon A)

Erabili eta botatzeko hilabeterako ukipen lenteak. Jarri eta ahaztu hilabetean!

- Bi pack (hiru hile)
- Renu soluzio bakarreko pote bat
- CDa opari
- Gizonezko/Emakumezko nezeser bat

12.900 pta



SofLens 38



- Botatzeko lenteen 6 pare
- Renu soluzio bakarreko 2 pote
- Adolfo Dominguez nezeserra

Har ezazu parte, Adolfo Dominguez produktuetan 50.000 pezetaren hileroko zozketan

16.500 pta



Botatzeko lente progresiboak ikusmen nekatuarentzat

Eguzkitarako betaurreko graduatuak



Nik neure gustuko eguzkitarako betaurrekoak aukeratzen ditut. Eta Euskoopticos-en graduatu egiten dizkidate. Izan ere, udan ez da eguzki izpirik galdu behar. Ezin dut gehiago eskatu...

9.900 pta.tik aurrera



P. MANSO
Optika

Irizar 2 BERGARA
Telefona: 943 76 27 86



ARETXABALETA

ARRASATE

Oparia

EROSKETA DOHAIN



Telebista-Bideoa-Soinua-
Banatzaile ofiziala **expert**

Andra Mari Auzunea, 1 • Tel. / Faxe: 943 79 10 97
ARETXABALETA



Etixerako altzariak-
Diseinua-Dekorazioa

Araba etorbidea 20 • Tel. / Faxe: 943 79 23 51
ARETXABALETA



Banatzaile ofiziala
FAGOR

Mitarte 3 • Tel. / Faxe: 943 77 04 55
ARETXABALETA



Etixerako altzariak-
Diseinua-Dekorazioa

Araba Etorbidea 5 • Tel. / Faxe: 943 79 41 82
ARRASATE

Zenb. 00000

Zenbaki honekin parte hartuko duzu

Aretxabaletako **Arkauz Altzariaken** (Araba Ibilbidea, 20)

2000.eko uztailaren 1ean eta irailaren 30ean,

arratsaldeko 20:00etan egingo den zozketan.

Zozketa bakoitzeko saridunak DOHAINEKO EROSKETA izango du opari
(500.000 pta.rainoko erosketa).

Erosketaren zenbatekoa boletoan dago zehaztuta.

Erosketaren zenbatekoa:

(gutxieneko erosketa 80.000 pta.takoa)

--	--	--	--	--	--	--	--

pta.